

ttipi ttapa

2001eko urriaren 18a • XXI. urtea

312



Elizondoko feriak urriaren 26 eta 27an

GB

Udazkeneko lehen feriak ailegatu dira eta aitzaki horrekin, Baztango baserri batzuk eta baserri-tarren kezka handienak ezagutzeko modua izan dugu.



Nazabalek hartu du lekukoa

25

Etxarri-Aranazko Floren Nazabal aizkolariak irabazi du XXI. mendeko Nafarroako lehen txapelketa, Mikel Mindegiaren lekukoa hartuz.



03 Senpereko
Zaldubi Ikastolak 30 urte

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko mogleak
kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak



Larunbat
goiz eta
arratsaldez
irekia



Orain erakustoki berria. Etorri
gure modeloak erosago ikustera.

ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637780 • NA-31780 LESAKA

MUEBLES A METS

Sarrera BERATIK da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443



Sukaldeak
Egongelak
Logelak
Bainugelak



ESKAINITZA

- SOMIER ARTIKULATUA
- LATEX KOLTZOIA (90x190)

OSORIK

84.900 pta

4.000 m²ko erakusketa mogleak ikusteko

Larunbat arratsaldetan irekia

DATUAK...

- **Beronika Zamora Senpereko Zaldubi ikastolako erakasle da. 1973an, ikastola ireki eta bi urtera sartu zen ikasle.**
- **Ekitaldiz beteriko ikastolaren urtemuga ospatzen ari dira senpertarrak. Hogeita hamar urteotan 130 familien haurrak, gutxi gora behera, ikasi dute Zaldubín.**
- **Haurren kopurua handitzen ari denez, etorkizunari begira egoitza handiagoa izan nahiko lukete ikastolako arduradunek.**



Beronika ZAMORA *Senpereko ikastolako irakaslea*

ELKARRIZKETA
ELKARRIZKETA

«Urte osoa erabiliko dugu ikastolaren urteurrena ospatzeko»

Rakel GOÑI

Nolakoak izan ziren Senpereko ikastolaren hastapenak?

1971ko irailean ireki zen ikastola 10 ikaslerekin. Hasiere ikasle bezala bizi izan nuen. Pentsatzen dut nahiko zaila izanena zela ikastola muntatzea, lokal bat atxemaitea, jendea elgarretaratzea... jendearen ikuspuntutik berritasun bat zen eta ez zuten ongi-ongi ikusten. Ideia onartzeko zailtasunak izan zirela uste dut.

30 urte hauetan nolakoak izan da ikastolaren garapena?

Lehenik bakarrik Ama Eskola zen. 1990eko. hamarkadan Lehen Maila ireki zen. Gauzak aunitz aldatu dira, berriki arte haurrak 6 urtetan bertze eskoletara joan behar izaten zutelako, ezin zirelako euskarazko irakas-kuntza sisteman gelditu. Beste al-daketa nabarmena lokalena izan da. 90. hamarkadan ere, Seaskak akordioa sinatu ondotik, Herriko Etxeak lokalak utzi zizkigun. Haurrak orain 10-11 urterekin ateratzen dira, gehienak Ziburu edo Kanboko kolegioetara Seaskako sisteman segitzeko.

«Aurten 52 ikasle ditugu, eta urtetik urtera kopurua handitzen ari da»

Jendeak ikastolaz zuen ikusmoldea aldatu da?

Bai aldaketa hori sumatu da. Onartzen da, baina halere ez pentsa, beldur batzuk badira oraindik, euskaraz ikasten ote diren berdin matematikak edo natur zientziak... Nahiz eta gizarteak gehiago onartu gure presentzia, haurren eskolaritate mailan jendeak baduen kezka da, euskaraz egiten ote den behar den lana.

Ikastolako haurrak Senperekoak dira bakarrik?

Ez. Inguruko herrietakoak ere biltzen dira. Sarakoak, Zuraidekoak eta baita Urdazubitik etorri izan dira. Irakasleei dagokienez, hiru gaude egun osoan eta laugarren bat egun erdiz frantsesa irakasteko.

Zeintzuk dira ikastolak dituen beharrak eta proiektuak?

Haurren kopurua 52koa da aurten, baina etengabe igotzen doa. Gela

berri bat ireki behar izan dugu tokirik ez zegoelako. Jostatzeko tokia ere nahiko hertsia da. Alde horretatik behar batzuk badira baina oraindik ez da finkatu zer egingen dugun. Hurrengo urteetan argituko da. Birtartean gu Herriko Etxearekin kontaktuan gaude eta gure beharrak zeintzuk diren azaldu dizkiegu.

30. urteurrena ospatzeko ekitaldiak zeintzuk dira?

Pentsatu genuen urte osoa behar zela erabili urteurrena ospatzeko, 30 urteak heldutasunaren urteak baitira. Urriaren 14an bazkari handi bat egin genuen eta han lehenagoko eta oraingo irakasle, ikasle eta buratsoak bildu ginen. Azilaren 18an kantaldi bat izanen da. Senpereko elizan Bidaia taldea izanen da kantari. Olentzeroren eguna hobekiago antolatzea pentsatu dugu. Gurasoen partehartzea handitu, herriko elkar-teei laguntza eskatu eta abar. Apirila aldera urtero ikastolaren astea egingen dugu, eta indar berezia egitea pentsatu dugu, erakusketak eginez eta beste dimentsio bat emanez aste horri.



Uztailaren 30eko 203/2001 FORU DEKRETUAK, agertzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako, zein lanpostutan den euskara jakin beharrekoa, (Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakasleenak kanpo dira). Dekretuak ere zer jakite maila behar duten zehazten du eta zein lanpostutan hartu behar den merezimenduzat euskara jakitea, beste batzuen artean. Guzti honen eragina zein izanen den aztertu du Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak, batez ere Baztan, Malerreka, Leitzaldea eta Bortzirietan.

EUSKARAREN DEKRETUAREN ERAGINA ADMINISTRAZIOAN

Nafarroako ehun langiletik bakarrari eskatuko zaio euskara jakitea

Rakel Goñi

Nafarroako Gobernuak Administrazioiko zein lanpostuetan izanen zen beharrezkoa euskara jakitea 2001eko Foru Dekretuan (FD) onartu zuen. FD honen helburua da abenduaren 1eko 372/2000 FDak ezarritakoa garatzea. Hain zuzen, dekretu hark zioenez, administrazio bakoitzak zehaztu behar du zein lanpostutan izanen den beharrezkoa euskaraz jakitea eta zeinetan izanen den merezimendua. Beraz, FD honek Nafarroako Gobernuko zein lanpostutan izanen den beharrezkoa euskaraz jakitea eta zeinetan baloratuko den zehaztu egin du.

JAKITE MAILAK

Hiru jakite maila bereizi dituzte:

1. jakite maila: (1etik 5erako sailkapenean) mintzamenean 4. maila eta idazmenean 3. maila. Baliokidetzak: lau kurtso gairidurik hizkuntza eskola ofizial batean, edo bederatzi urrats Nafarroako Gobernuak antolatutako kurtsoetan.

2. jakite maila: mintzamenean 5. maila eta idazmenean 3. maila. Baliokidetzak: hizkuntza eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat.

3. jakite maila: mintzamenean 5. maila eta idazmenean 5. maila. Baliokidetzak: hizkuntza eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat.

UKITZEN DITUEN ALORRAK

Eremu euskaldunean euskara jakitea zein lanpostutan den beharrezkoa zehazten du. Gainerakoetan merezimendua izanen da. Lanpostu gehienak Hezkuntza Departamentukoak (irakasle ez direnak) eta Osasunbideakoak dira. Administrazio orokorreko batzuk ere ageri dira, baina denek lantokia Iruñean dute. Eskualdeari dagokionez, Hezkuntzako lanpostu batzuk ageri dira (ia denak ikastetxeetako administrariak) eta bertzalde, osasun zentroetako postuak.

OSASUN ZENTROAK

FD honek indarrrik gabe utzi ditu lehenagokoak eta bereziki 154/1994 FDa (hartan zehazten da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantillan zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak). Ondoko orrialdean duzuen taulan bi dekretuak alderatu ditugu.

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUKO LANGILEAK (IRAKASLEAK EZ DIRENAK)

Dekretuan ageri diren lanpostuak:

- **Lekaroz-Elizondo:** institutuko bi administrari laguntzaile.
- **Leitza:** institutuko administrari laguntzaile bat.
- **Elizondo aldea:** hezkuntza bereziko begiralea.
- **Baztan aldea:** fisioterapeuta
- **Lekaroz (ILZ)-** administrari laguntzaile bat.

Dekretuan ageri ez diren lanpostuak:

- **Toki Ona Institutua (Bera):** Adminis-

EUSKARA JAKITEA BEHARREZKO DUTENAK

	Denetara	Lehen euskaldunak (1994 FD)	Orain euskaldunak (2001 FD)
BAZTAN			
admin. lag	4	2	1
erizain	7	4	2
gizarte lang.	1	1	1
mediku	7	4	2
BORTZIRIAK			
admin. lag	3	2 (plantillan 2 ziren)	1 (plantillan 3 dira)
erizain	6	4	2
gizarte lang.	1	1	1
mediku	7	4 (pediatra barne)	2 + pediatra
LEITZALDEA			
admin. lag	1	1	1
erizain	3	2	2
mediku	3	2	2
MALERREKA			
admin. lag	3	2	1
erizain	5	3	2
gizarte lang.	1	1	1
mediku	6	3	2 + pediatra 1

trari laguntzailea, sukaldeko urgazlea sukaldaria eta etzezaina.


- **Amazabal institutua (Leitza):** Sukaldaria, etzezaina
- **Lekaroz-Elizondoko institutua:** Administrari laguntzaile bat, 2 etzezain, mantenimenduko burua.
- **Elizondo, Bera, Lesaka eta Leitza-**ko liburuzainak.

NAFARROAKO GOBERNUAREN BERTZE DEPARTAMENTUAK

Gainerako departamentuetako langileak ez dira ageri. Horrek erran nahi du, suhiltzailea, foruzaina, mendizaina... izateko eta eskualde honetan lan egiteko ez dela beharrezkoa izanen euskaraz jakitea.

OSASUNBIDEAN EUSKARA ATZERAKA

■ Lehen (1994 ko Foru Derkretua)
■ Orain (2001 eko Foru Derkretua)



NAFARROAKO EGOERA OROKORRA

16.000 lanpostu inguru dira Foru Administrazioan eta euskaraz jakin beharrekoak (irakasleak aparte) 153 dira. Hiru Departamentutan daude banatuak: Administrazio erroan, Hezkuntza eta Kultura eta Osasunbidean.

ADMINISTRAZIOA

Administrazio erroan 19 itzultzaile, 25 langile Euskarazko Prestakuntza Bulegoan, administrari eta kazetari 1 daude.

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Hezkuntza eta Kultura Departamentuan: 23 administrari hainbat ikaste-

txeetan banatuak, beste 11 administraziozko bertze postuetan, 10 euskara teknikari; 2 itzultzaile, hezkuntza teknikari 1, fisioterapeuta 1, 5 begirale. Fisioterapeuta eta begiraleen kasuetan nahikoa izanen dute Hizkuntz Eskola Ofizial batean 4 kurtso gainditurik izatea mintzamenari dagokionez, eta 3 kurtso idazmenean. Eremu mistoan 30 lanpostutan euskaraz jakitea merezimendua izanen da

OSASUNBIDEAN

53 langile daude (eremu euskaldunetan guztiak). Gobernuak aprobetxatu du eskatu beharreko maila jausteko:

nahiko izanen da Hikuntz Eskola Ofizial batean 4 kurtso gainditurik izatea mintzamenari dagokionez, eta 3 kurtso idazmenean.

Ondorioa garbi dago: Irizpide oso murriztaileekin egindako profilak dira, ez da inondik inora bermatzen euskaldunok euskaraz egiteko dugun eskubi-dea (Eremu Mistoan eta euskaldunetan Legean jasota).

Osasunbidean profilak gutxieneko duintasunez zehaztuta zeuden, baina modu oharkabean indargabetu ditu, euskaraz jakitea beharrezkoa zen lanpostuen kopurua murriztean.

Lege Gordallua: NA-1324/85

Franko Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa:(+34) 948 63 11 88
Faxa:(+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com/ttapi-ttapa
ttipl-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa. **Pre-**

sidentea: Pello Apezetxea. **Kudea-**

tzalea: Joxemanuel Irigoien. **Zuzen-**

darria: Aitor Arotzena. **Publizitatea:**

Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia

Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arotzena,

Rakel Goñi. **Berriemalleak:** Joseba

Azpiroz, Esteban Arotzena, Juana Mari

Saizar, Kontxi Klaber, Pejo Zestau,

Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione O-

txandorena, Alba Fernandez, Franck

Dolosor, Margari Etxenike, Koro Ira-

zoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari

Etxeberri, Frederick Berruet, Nerea

Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Ola-

garai, Nerea Mitxelorena, Aitor Aro-

ztzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Eus-

kal Herriko Kontsumitzaileen Antola-

keta...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde La-**

guntzaleak: Bera, Leitza, Goizueta,

Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta

Sarako udalak, Zugarramurdiko Ake-

larrar elkartea, Bortzirietako Euskara

Mankomunitatea, Malerrekako Zer-

bitzu Mankomunitatea, Zugarra-

murdiko Akelarre Elkartea...

Harpidetza sarjak:

Hego Euskal Herria	2.400 Pta.
Ipar Euskal Herria	180 Libera
Europa	4.600 Pta.
Amerika	16.500 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

Euroa badator



Zuzen KARRASKEDO *Dantxarinear CANeko langilea*

Komunikabideak sobera burrunba ateratzen ari dira izan behar denarendako eta jendea izitu dute

Euroaren inguruko informazioa nahikoa izan da, halere nire ustez komunikabideek jendea izitu dute, isladatzen dutena baino errexagoa izanen dela uste dut. Komunikabideak sobera burrunba ateratzen ari dira izan behar duenarendako. Bertzalde hemen Dantxarinear jendea ohituratu da go liberetatik pezetetara aldaketa egitera, eta alderantziz ere. Jendea pixka bat nahasi da libreta eguneratu eta saldoa euroetan agertu denean. Hasiera batean harritu dira baina nahiko erraza izanen da hemen ohituztea. Barnekaldean zailagoa izanen dela uste dut. Mugaren bi aldetan lan egiten duten komertzio eta enpresak kontabilitatea aldatzen hasi dira. Nire lanari dagokionez aise errazagoa izanen da euroaren etorrerarekin. Udako turista guztiak ez dute moneta aldatzera etorri behar, kutzazinetatik aterako dute zuzenean dirua. Eskualdeko jendeak aunitz eskertuko du euroa, batez ere Urdazubi eta Zugarramurdikoak, erosketak iparraldean egiten dituztenak, urtariletik aitzin txanpon bakarria eramanen dute sakelean. Gero eta jende gehiago herrialde batean lan egin eta bertzean bizi denez hauendako ere euroa onuragarria izanen da. Urdazubi eta Zugarramurdin bilera informatiboak egin genituen zalantzak argitzeko. Euroari buruz gauza batzuk azaldu zituzten, txanponak eta billeteak ere erakutsi genituen. 25-30 bat pertsona bildu ziren bilera hauetan. Mugan jendeak euroa ona izanen dela uste du. Pentsatzen dut hegoaldeko jendea orain errazago joanen dela iparraldera erosketak egitera edo arratsaldea pasatzera. Orain arte adibidez eguraldi ona zegoenean eta hondartzara joatea pentsatzen genuenean liberak izatea edo ez aunitz mugatzen gintuen, Hendaiera joan beharrean Hondarribira joatea erabakitzen genuen. Beste arazoa ttikia euroaren diseinuarekin sortuko da. Billeteak berdina dira herrialde guztietan baina txanponaren alde bat herrialde guztietan desberdina izanen da. Joan den udatik galdetzen hasi dira ere Frantziako euroa eta Espainiako berdina balio duten. Hurrengo udan segur txanponen inguruko galdemoduak egingo dizkidatela. Hemengo jendeak errexago ulertu du kanpokoak baino. Paris edo Madrilgo pertsona batentzat euroa buruhauste bat bertzerik ez da. Guretako prezioen arteko konparazioa egitea aise errazagoa izanen da.



M^a Angeles MUJICA *Ibardingo Mendi-mendian Bentakoa*

Hasieran psikosi pixko bat sortuko da, duda eta aitzaki aunitz, baina gero denondako hobea izanen da

Guk batez ere Frantziako jendea izaten dugu, espainola gutti, eta hangoak euroaren aurkakoak dira batez ere. Lehenbizian kontrariedade dexente sortuko dira, horiek ez baitira gu bezalakoak, gu gehiago kanpora eginak gara. Amerikan, amerikanoak bezala direla uste dut. Lehenbizian izanen dugu psikosia, duda eta aitzakia aunitz, ekonomikoki ez gaudelako ongi ez haiek ezta guk ere. Espero dut hala ez gertatzea baina nere ustez iparraldekoek hasieran nahiko lan izanen dute euroa onartzen. Han patrotismoa nabariagoa da eta ildo horretatik zalantzak izanen dituztela uste dut. Jendearekin tratatu handia dut, batez ere bertze aldekoekin eta euroaren afera ez dute batere gustoko. Hegoaldean ordea hogeii duroengatik ez gara arduratzen baina beraiek bai, zentimoei eta aunitz begiratzen diote. Lehenbizian denok izanen dugu nolabaiteko frenoa, horretara etsia nago, baina gero ohituratuko gara. Jendea gauzak puska merkeago direla konturatzen bada errezagoko ohituratuko da hunat erostera etortzera. Gerora begira denondako hobea izanen da. Lehenbizian, mesfidantza izanen dela uste dut. Mugaz bestaldekoen izatea gurearekin konparatuz desberdina da. Gauzak kontu emanez egiten dituzte, begiratuz, konparatuz... Guretzat bentetan ez da kalte izugarria izanen baina bai nabarituko dela salmenten beherakada bat. Agian denbora pasa ahala inoiz baino hobekiago gaude, nork daki... Gu libera eta pezetekin lan egitera ohituru bagara ere zaila izan zen hasieran, alde horretatik uste dut ona izanen dela euroa. Ez dugu moneta aldatzen ibili behar, bentaja bat izanen da dudarik gabe. Bertzalde euroaren inguruko informazio nahiko badela uste dut, baina informazioarekin bakarrik ez da nahiko, horrekin ez dugu deus egiten, gero erabili egin behar da, ohitura hartu. Ibiltzen dugunean ohituratuko gara, baina jarri arte denbora pixko bat pasatu behar da, gostako da.

• IRAKURLEAK MINTZO •

**Nafarroako
Gobernuko
Lehendakariari
hainbat galdera**

Berriz ere Nafarroako gobernuak bertze foru dekretu bat argitaratu du, azken boladan ohikoa den bezala, Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak herritarrei administrazioarekiko harremanean bi hizkuntza ofiziale-tako edozein erabiltzeko aitortzen dien eskubidea murrizten duena.

Uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretu berriak agertzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak eta zer jakite maila behar duten, eta zehazten du zein lanpostutan hartu behar den euskara jakitea beste batzuen arteko merezimendutzat.

Bortzirietako eskualdeari (Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka) dagokionez, euskara jakitea beharrezkoa izanen da sei kasutan bakarrik (2 mediku, 2 O.L.T./E.D.U., pediatria 1, administrari laguntzaile 1 eta gizarte langile 1), guztiak Lesakako oinarrizko osasun laguntzako talde-

koak. Gainera, lanpostu guztiei jakite maila baxuena ezarri zaie.

Gai honen inguruan ondoren eginen dizkizudan galderei erantzuna ematea eskatu nahi dizut, betiere, Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legean oinarrituz, hau da, "hiritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute. Horretarako eta eskubide honen mailaz mailako erabilpena bermatzeko, neurri egokiak hartuko ditu eta beharrezko gerta daitezkeen bitartekoak erabakiko":

1.- Lesakako oinarrizko osasun laguntzako taldearen kasuan, 154/1994 Foru Dekretuarekin alderatuz, euskara jakitea beharrezkoa den lanpostuen kopuruan murrizketa izan da, hau da, lehen 11 lanpostutan beharrezkoa bazen, orain 6 lanpostutan bertzerik ez da beharrezkoa izanen.

Zein irizpide erabili ditu gobernuak euskara beharrezkoa den lanpostuen kopurua murrizteko?

Aipatu artikulua lege horrek berak "eremu eskalduna" deitzen duen lurralde osorako aplikaga-

ria izanik eta, bertzalde, euskara jakitea beharrezko duten lanpostuek herritar guztiei zerbitzua ematea ezinezkoa dela kontuan harturik, zein irizpidetan oinarritu da herritar batzuek bakarrik izan dezaten osasun alorreko langileekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremana izateko eskubidea?

Osasun alorreko langileen eta gaixoen arteko komunikazioa hain garrantzitsua izanik, zein arrazoitan oinarritu da departamentu hori lanpostu hauei jakite mailarik baxuena ezartzeko?

2.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren kasuan ikus daitekeenez, euskara jakitea beharrezkoa izanen da eremu eskalduneko institutu publiko guztietako administrari laguntzaile lanpostuetan, Berako Toki Ona institutuaren kasuan izan ezik.

Zein irizpideren arabera ezarri da Berako institutuan, ikasle eta irakasle gehienak elebidunak izaki, administrari laguntzaile izateko euskara jakitea beharrezkoa ez izatea? Zein irizpideri jarraitu zaio Altsasuko, Lekaroz-Elizondoko edota Leitzako institutu etako administrari laguntzaile izateko euskara jakitea beharrezkoa izan dadin eta, aldiz, Be-

rako institutuaren kasuan hala izan ez dadin?

Institutuko sukaldariaren, atezainen eta irakasle ez diren gainerako lanpostuen kasuan euskara jakitea ez omen da beharrezkoa izanen. Euskarari buruzko Foru Legearen aipatu 10.1 artikuluan oinarrituz, institutu horietako ikasleek ez al dute eskubiderik lanpostu horietako langileekiko harremanean bi hizkuntza ofiziale-tako edozein erabiltzeko?

Hala berean, Lesakako eta Berako liburutzaileen lanpostuak ere ez dira agertzen zerrenda horretan, nahiz eta Nafarroako Gobernuaren plantilla organikoan bi kasuetan euskara jakitea beharrezkoa zela ezarria dagoen. Beraz, zein irizpidetan oinarritu da departamentu hori bi udalerririk horietako liburutzaile izateko euskara jakitea beharrezkoa izan ez dadin?

3.- Dekretu honek Administrazio erroko, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zenbait lanpostu bertzerik ez ditu aipatu. Beraz, Nafarroako Gobernuaren osatzen duten gainerako departamentuetako lanpostuetan (foruzainak, mendizainak, suhiltzaileak, bideetako

zaindaria...), eremu eskaldunetan lan egiten badute ere, euskara jakitea ez da beharrezkoa izanen. Nola bermatuko du Nafarroako Gobernuak aipatutako artikulua aitortzen duen eskubidea beteko dela?

Laburbilduz, foru dekretu hau prestatzerakoan, kontuan hartu al dira 18/1986 Foru Legeak hizkuntza ofizialean erabiltzeko harremanean bi hizkuntza ofiziale-tako edozein erabiltzeko aitortzen dizkien eskubideak? Horrez gain, kontuan hartu al dira 372/2000 Foru Dekretuak berak ezartzen duen helburua, hau da, "eremu eskaldunetan berdin erabili ahal izatea hizkuntza ofizial bata nahi bestea, laneko nahiz herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza gisa"?

Euskararen inguruan argitaratzen ari diren dekretu, plan eta arau hauek guztiek bermatzen al dute herritarrek administrazioarekiko harremanean hizkuntza hori erabiltzeko duten eskubidea? Horiek guztiak bateragarriak al dira Euskarari buruzko Foru Legearen Atariko Tituluan emandako xedapen orokorrekin?

**José Ramón Amoros
Bortzirietako Euskara
Mankomunitateko
lehendakaria.**

H. Lopez
iturgintza
n Kalefakzioa
n Gas Instalazioak
n Iturgintza industrialak
n Ureztatze sistemak
Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

SELEZIONES UDANA, S. L.

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest
Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

**Alberto
RETEGI**
abokatua
Altzate 17
BERA
& 948 630 763

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Noticias, 01eko urriaren 3a

«Duela 25 urte zilarrezko ezteiak bete nituenean ez zitzaidan iruditu ospatu behar zenik. Baina orain hainbertze aldiz erran didate omenaldiarena ezin izan dudala ezetz erran. Izan nuen bokazioa zuzena zela uste dut eta berriro ere hamahiru urte banitu apez izatea erabakiko nuen berriz ere».

Julian MITXELENA
Ziga eta Elbeteko apeza
D.Noticias 01-10-03

«Inguruko udalek neurriak hartuko ditugu Nafarroak eta Gipuzkoak elkarrekin dituzten, 121A

nazionalako hamar kilometroak laster moldatzen ez badituzte. Inork ez digu kasurik egiten, errepidearen egoera tamalgarrria da eta ahalik eta lasterren erantzuna ematea eskatzen dugu. Bertzela mobilizazioak hasiko ditugu, trafikoa mozketekin adibidez. Bertzalde Lesakatik Oiartzunera doan NA-4000 errepidea ere oso egoera txarrean dago. Aurten konpontzekoa zen baina ez dira lanak hasi ere egin»

Jose Luis ETXEGARAI
Lesakako Alkatea
D.Navarra 01-10-10

• 11 GALDERA LABUR •

**Volki WIENECK** *Azkaindarra, alemandarra sortzez*

- **Noiztik Euskal Herrian bizirik 6 urte.**
- **Noiz hasi zinen Euskara ikasten?** Duela 6 urte, uste dut. Donibane Lohizungo gau eskolan hasi nintzen. Ondotik barnetegi batean izan nintzen.
- **Zonbat hizkuntza ezagutzen dituzu orotararik orain?** 5: Alemana eta Frantsesa, Inglesa ere bai, Euskara eta Espainola.
- **Zoina da zure lana orain?** Ziburuko Ikastolan erakasle naiz aurtentzen. Historia erakasten dut euskaraz 4.ean eta 6.ean.
- **Zer formakuntza duzu?** Historia erakasle baten formakuntza. Frantzian "Maîtrise" maila dena.
- **Alemanian badira hizkuntza gutituak?** Bai, populazio biziki tiki bat, Sorben hizkuntza dute. Ez da batere ezaguna.

- Ez dute hizkuntza politika berezirik.
- **Zure haurrak, zonbat hizkuntza ulertzen ditu?** Momentuz hiru: Euskara, Alemana eta Frantsesa.
- **Zer adin du?** 21 hilabete.
- **Zonbat hizkuntza ulertuko dituzte zure ustez handitzean?** Ikastolan bertze 2 ikasi beharko dituzte beraz 5 normalean.
- **Duela hamar urte nola ikusten zenuen zure goeroa?** Nik pentsatu nuen Alemanian geldituko nintzela nere herria eta han historia erakasle izanen nintzela.
- **Zure burasoei zer diote?** Pozik dira haiek ere uste dut, hemen ongi naiz, neska laguna badut, haur tiki bat, eta laster bigarren bat.

ANTZUZELAI S.L.

Iturro errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlatza
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarrak
Arkuak	Marrackiak
Pilareak	

'Abujardakoa' Mazorra
Zehar antzekoa Txupetarra

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

DROGUERIA MOLINERO

• DROGUERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Iturlandeta, 6 • & 948 63 02 40 • BERA

J. RAMOS

Zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut

& 948631342 BERA • & 948637172 LESAKA

OBRA PROIEKTUAK

- 4 Etxe berriak eraikitzeko
- 4 Zaharbarritzeko karpotik eta barnetik
- 4 Urbanizazio-proiektuak
- 4 Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • & 948 637 503 • LESAKA

KULTURA

Nafarroako Euskal Kantu txapelketan izen emateko epea azaroaren 8a arte zabalik

Abenduaren 15ean izanen da finala Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan

ttipi-ttapa

Euskal kantugintza zabaldu eta erakustarazi, kantatzeko zaletasuna piztu eta kantari berriak plazaratzeko asmoarekin Euskal Kantuzaleen Elkarteak Nafarroako Euskal kantu txapelketa antolatu du bertze urte batez. 15 urtetik goitiko edozeinek parte hartzen ahal du, bakarka, binaka nahiz taldeka, eta izena emateko epea azaroaren 8a bitarte zabalik dago. Horretarako, inguru honetan Elizondoko Xorroxin Irratira (948 581226) edo Leitzako Karrape Irratira (948 610914) deitu behar da.



ARTXIBOKOA

Arantzako kantari taldea 1995eko Euskal Kantu txapelketaren finalean, Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan.

FINALA DONEZTEBEN ABENDUAREN 15EAN

Aurtengo txapelketa bi kanporaketa saio izanen ditu. Lehena, azaroaren 17an, arratsaldeko 5etan Luzaidoko pilotalekuan eta bigarrena azaroaren 24an, ordu berean, Altsasuko pilotalekuan. Bi saio hauetan erabakiko

da abenduaren 15ean, arratsaldeko 5etatik aitzinera Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan eginen den finalean parte hartuko dutenen zerrenda. Finalaren ondotik, urteroko ohiturari segituz, partaide guztiakin afaria izanen da.

Epaimahaia Fermin Iriarte, Zizurreko San

Fermin eta Zangotzako Nora Koruko zuzendariak, Arantza Ezkurra, Burlatako Musika Eskolako irakasleak eta Amaia Zubiria kantariak osatuko dute. Epaimahaiak doinua, hitzak, ahotsa, trebetasuna, interpretazioa, kantuaren ekarpena eta nobedadea epaituko ditu. Kan-

tu lehiaketa dela gogon hartuz, bertze guzien gainetik kantua baloratu da, nahiz eta kantariak nahi bezalako musika laguntza eraman ahal izanen duten. Kategoria bakoitzeko lehenengo bientzat izanen dira sariak eta epaimahaiak bertze sariak ere ematen ahal ditu.

Gazteak kantari Zikloa

Euskal Kantuzaleen Elkarteak Nafarroako Kantu txapelketa urtero antolatzeko asmoa du hemendik aitzinera. Baina horretaz gain, parte hartzen duten gazteei, txapelketaz kanpoko emandialdiak ere segurtatu nahi zaizkie. Horretarako «Gazteak kantari» ordu bateko 15 kontzertu zikloa egitea proposatu du Kantuzaleen Elkarteak 2001. urteko azken hilabeteetan. Txapelketako azken edizioetako partaideek hartuko lukete parte emandialdi hauetan. Antsoain, Aranguren, Beteilu, Elizondo, Erronkari, Etxauri, Goizueta, Ilunberri, Irurtzun, Etxarri-Aranaz, Lizarra, Orbaizeta, Azkoien eta Zangotzan egin nahi dira emandialdiak.

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera & 948630735



ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

zapata denda.
kalotxa.
osagarriak
konponketak.

Legia 36 Bera
948 631516



Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031 • BERA



948631076 • BERA

BERA

Urriaren 28an ospatuko da hamabosgarren Lurraren Eguna

100 eskulangileren lanak egonen dira ikusgai eta salgai

Asier GOGORTZA

Beratar zenbaitzuk ongi gogoan izanen dute 1987ko Lurraren Eguna. Orduan 25 artisau bildu ziren Altzateko karrikan, denak Bortzirietakoak. Orduz geroztik 15 urte joan dira, eta lehenbiziko urteko izpiritu berbera gordetzen badu ere, aunitz hazi da besta egun hau. Aurten Nafarroa guziko eta baita kanpoko eskulangileak bilduko dira, denetara 100 bat antolatzaileen ustetan, eta eskualdeko nahiz inguruko jende aunitz ere etorriko da egun pasa. Eguraldia ez da aitzakia izanen gainera, denbora eskaxa baldin bada kiroldegi barrenean eginen baita artisau erakusketa, eta Altzateko frontoian, berriz, janari salmenta.

Beti bezala goizeko 10,30ak aldera hasiko dira Lurraren Eguneko



JUANJO ALONSO

Eskulangile eta artisauen lanak ikusgai eta erosgai izanen dira aurten ere.

ekitaldiak, Lizuniagako lgoerarekin. Ondotik goiz eta arratsalde zabalik egonen dira artisauen postuak, eta bertze hainbertze ekitaldi ere izanen dira, tartean bertsolari, dantzari, eta bertzelako musikariak.

Bezperan, hilak 27, Sen taldearen kontzer-

tua izanen da Pui ostatuan, arratseko 11,30-etatik aitzinera.

Etxeangasna, barazkiak edo sagardoa egiten duten baseritarrek ongi dakitenez, aurten ere hauen erakusketak eta lehiaketak izanen dira. Bukatzeko, antolatzailleek ohar bat egin

nahi diete bisitari guziei. Izan ere, azken bi urtetan arazoak izan dira pegatinak saltzera kanpotik etortzen den jende batzuekin, eta argi utzi nahi izan dute saltzaileek ez dutela Lurraren Eguneko antolatzaren inongo bai-

FLASH

SOS Angola-ren janari biltzeta

SOS-Angola kanpainaren barnean janaria biltzen aritu ziren urriaren 9 eta 10ean Herriko Etxean. Afrikako herrialde horretara bidaltzeko lekaleak, arroza, pasta, hauts-esnea eta kontserba latak bildu nahi ziren eta bi egun horietan 400 kilo baino gehiago jaso zituzten, Beran bakarrik. Hemendik, Behar-Bidasoak Irunen duen bulegora eraman, han edukinontziak bete eta itsasontziz joanen da janaria Angolara.

Kulturako egitaraua

Urriaren 19an Frantziako Association AKren eskutik dantza garaikide ikuskizuna izanen da Kultur Etxean, arratseko 8etatik aitzinera. Lamixine BAT taldeak antolatu du.

Jesusen Bihotza ikastetxeak urriaren 24an ipuin kontalari bat ekarriko du eskolako haurrentzat.

Nafarroa Oinez

Urriaren 21ean Lodosan ospatuko den Nafarroa Oinezarako autobusa antolatu du Espidobaita elkarteak. Txoznan edo materiala saltzen lan egiteko prest dagoenak Botxon edo Errekalden eman beharko duizena. Adierazi digutenez, goizeko 6etan abiatuko da autobusa, eta goizeko 9etatik 3etara izanen dira lanerako txandak.

MUSIKA

Onddoren lehen diskoa karrikan

Preziskio onddo sasoi bete-betean gauden honetan ateri du diskoa "Onddo" talde beratarak. Joseba Irazoki, Ibai

Gogortza, Iñigo Telletxea eta Igor Telletxea dira taldeko partaideak. Ostatueta salgai dago, 2.000 pezetaren truke.



ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekarietza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA



Alzate, 19•948630786 •BERA

LESAKA

Adinekoak zaintzeko ikastaroa antolatu du Herri Eskolak

Izen ematea urriaren 24a baino lehen egin behar da

Aitor AROTZENA

Joan den urtean egin zuen bezalaxe, geriatría edo adinekoak eta ezinduak etxean zaintzen ikasteko ikastaroa antolatu du aurten Herri Eskolak, Udalaren laguntzaz. Izena emateko epea urriaren 24an akautuko da eta horretarako Izarra okindegi-ra joan behar da. 3.000 pezeta ordaindu behar dira izen ematerakoan.

Klaseak urriaren 30ean hasiko dira eta asteartero eta ortzegunero emanen dira ikastolan, arratsaldeko 5,30etatik 7,30etara. Antolatzaileek gogorazi dutenez, ikastaroa akautzerakoan ziurtagiria edo diploma eskuratzeko aukera izanen da.



AITOR AROTZENA

Desagertzeko bidean dagoen azienda omen da astoa. Nabaz auzoko Lindurrenbordan aldiz, bosgarren astoa jalo da, baserrian sortutako lehen-dabizkoa. Hori gutti balitz, ama pintazua eta aita ilun xamarra izan arren, zuri-zuria da astokumea. «Guttitan ikusten da hain asto zuririk» diote pozik Juan Mari Lopez eta Edurne Tapia jabeek.

FLASH

Mendi ibilaldia Sastrinera

Larunbat honetan, urriak 20, mendi ibilaldia egingen da Sastrinera, Iñaki Fagoaga preso gogoratuz. 3,30etan abiatuko dira plazatik eta 5etan izanen da ekitaldia Sastrinen. Zortzi urte bete dira Fagoaga atxilotu zutenetik.

Helikopteroek lur hartzeko lekua

Osasunbideak osasun atentzioa hobetzeko helikoptero medikalizatua kontratatzea aztertzen ari da. Horretarako Osasun Zentruaren inguruan lur hartzeko lekua beharko litzateke.

Kintoen bazkari eta afaria larunbatean

Larunbat honetan, urriak 20, egingen dute 1973 eta 1974an sortutakoen kinto bazkaria Kattu jatetxean, eguerdiko 2,30etan. Txartelak 2.000 pezetaren truke salgai daude Haizego eta Koskila ostatuetan. Gauez, berriz, 1955, 56 eta 57ko kintoen txanda izanen da. Afaria egingen dute leku berean. Txartelak 3.000 pezetatan daude salgai.

Onbordi

Onbordiko hotel-jate-txea ireki dutenetik trafikoa gehitu da eta horregatik, trenbidearen sarreran 40 km/orduko seinaleak eta baserri inguruetan seinale horizontalak paratzea eskatu dute bizilagunek.

KIROLA

Nafarroako Ligan hasi da Beti Gazteko infantil mailako taldea

Joan den urtean Bortziriak taldean elkartu ziren Gure Txokoa eta Beti Gazteko infantil mailako futbolariak. Aurten, berriz ere banatu eta Nafarroako Ligan hasiak dira bi taldeak. Kotte lantzi eta Mikel Oiartzabal

entrenatzaileen ardura-pean, beraz, Iruña aldera joan behar izaten dute kanpoko partiduak jostatzera. Lehendabiziko aldia da Beti Gazteko ekipo bat talde nafarrez osatutako liga batean aritzen dena.



Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
& 948 637826

ANIA
Bittiria 41% 948 637518 • LESAKA

KATU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak

LESAKA
Sukaldean erabilitako olioek bilketa Azaroan, urtarrilean... bi hilabetetik behin Lesakako plazan hilaren lehen ortzegunetan 9etatik 12etara.

ETXALAR

Urriaren 21ean izanen da usazaleen eguna: Usategietako Igandea

Bigarren urtez segidan herritarrentzat afaria izanen da larunbatean

Joseba eta Nerea

Usazale eta usazale ez diren etxalartarrentzat egun berezia izaten da urriaren hirugarren igandea. Izan ere, egun honetan ospatzen da usategietako igandea eta aurtengoan ere non gozatu izanen da. Goizean, Usategietara itzulixka egiteko aukera izanen da usazaleen lana ikusteko, usoek laguntzen badute bederen. Bazkalondoren Kiki, Koko, Moko eta Flash pailazoek alaituko dituzte plaza bazterrak eta segidan Bigira taldearekin dantzaldia izanen da. Hauen atsedendian, zozketa egingen da, bigarren urtez segidan Andra-Mari dantza taldearen alde. Zozketatuko diren sariak hauek izango dira: Lehenengoa 12 uso bizirik eta bigarren, hirugarren eta laugarrenak herriko bestetan motozerra erakustaldian egindako egurrezko irudiak.

Urriaren lehenbiziko egunean eman zitzaion



TTIPI-TTAPA TB

Usazaleen lana ikusteko modua izanen da eguraldiak laguntzen badu.

hasiera uso-denborari. Bertako usazalea den Patxi Elizalde aipatu digunez «*hasiera nahiko kaxkara izan da. Eguraldiak ez digu lagundu eta hartutako usoek erakusten dute hori. Espero dugu sasoa antzinerara joan ahal izatea*».

BEZPERAKO AFARIA

Joan den urtean egin zen lehenbiziko aldiz

Usategietako Igandeko bezperako afaria eta izandako arrakasta ikusirik, aurtengoan ere egingen da. Anttonion. Urriaren 17a baino lehen eman behar zen izena Elutsa ostatuan 1.000 pezetako fidantza utziz.

Lizaietako permuta

Duela urte bete udalaxeak Lizaietako lur-eremua trukatzeko ges-

tioak hasi zituen "Lagun-Toki" soziedadearen gibelkaldeko terrenoarekin. Hala ere, Lizaietako eremuak urbanizatzeo hasierako baldintzak betetzeko arazoak direla medio, gestio hauek bertan behera uztea erabaki du udalak. Honengatik, Iñarretako terrenoaren jabeek kalteordaina emanen zaien aztertzen ari da.

FLASH

Herriko Ostatua

Azken zortzi urteotan Herriko Ostatua Javi Urmenetaren esku egon da, baina orain kontratua akautu baino lehen, bere borondatez uzteko erabakia hartu du. Udaletxeak bere proposamena onartu ondotik, dagoeneko ostautza errentan adjudikatzeo lehiaketa publikoa irekia du.

Eskolako ateko estalpea

Euria egiten duenean Landagain eskolako atarian arazoak izaten dituztela eta, udal arkitektoek eskola sarreran estalpea paratzea eta atea aldatzea erabaki dute. Severiano Txoperenak burutuko du 939.000 pezetako aurrekontua duen obra.

Udalak komisaldegia berreskuratu du

1941. urtea geroztik Polizia Nazionalaren esku zegoen Iñarreta auzoko komisaldegia berreskuratu du udalak 60 urte eta gero. Azken urte erdi honetan denon ahotan zebilen etxea libre utziko zutenaren zurrumurrua, eta orain ofiziala egin da erabakia. Ondorioz, orain libre gelditu da etxea, udalak eman nahi dion edozein erabilerarentzat.

LESAKA

RTA RTAK

MANUEL TABERNA SL

Bidaia 10/82 - 41700 BÉTERA (Nafarroa)

Tel.- Fax: 948.63.10.27

bortzirUDI

BERA

ETIKETAK, ENKADENAZIOAK, PLASTIKAGUAK, FAXA, T-SHIRTAK, SKANNERRIA, PINTURAK, IMPRENTA LANAK, SERIGRAFIA, TIRATUTAK, PUBLIZITATIA

Estogara 26 beheak Tel.- Fax: 948 63 15 21

XATURETXEA

JATETXEA

Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE

ERRETEGI

Tfnoa: 948 637 127


LESAKA

IGANTZI

Herria ezagutzuz

Eguraldi zoragarriarekin gozatu ditugu aurtengo bestak

Amorruz hartu zituzten herritarrek ortziral arratsean egindako txikizioak



Sein abizena Igantzín

Aski ezaguna dugu Igantzín Sein abizena. Gaur egun 36 lagun dira herrian errol-datuak lehendabiziko abizentzat daukatenak. Oker ez bagaude, bigarren abizena da Telletxearen ondotik. Beraz, osasunez beterikoa. Baina, noiz eta nola iritsi zen igantzira?:

Zubiria

Zubiritarrak izan ziren XVII eta XVIII. mendeetan Argarateberegaren jabeak. 1778an, ordea, Diego Joseph de Zubiriaren alabak baserriko oinordekotza bereganatu eta kanpotar batekin ezkondu zen. Begira bertzela zer dioen Parrokiko artxiboko 14. ezkontza liburuak, 22. orrialdean: «1778: *se casaron Manuel Agustin de Sein, natural del valle de Oyarzun y Juana Maria Josepha de Zubiria, hija legitima de Diego Joseph de Zubiria*».

Bada, hortxe moztu zen Argarateberegaren mendeko ari, nolabait errateko, eta Seindarrrena hasi. Lehen erran bezala, osasuntsu iraun du gozotik abizenak, aipatu baserrian jarraitzeaz gain, herriko bertze etxe anitzetara zabaldu baita.

ARANTZA-IGANTZI

Sukaldean erabilitako olioan bilteta

Azaroan, urtarrilean... bi hilabetetik behin Bi herrietako plazan hilaren lehen ortzegunetan 13etatik 14etara.

Oskar TXOPERENA

Bestetatik zerbait azpimarratzekotan eguraldia egin beharko genuke aurtengoan. Hai-zegoa izan da nagusi ia egunero, zenbaitan gehiegi ere berotuz, eta ondorioz, egitaraua normaltasunez bete da. Jendea, berriz, zenbait ekitalditara aisago mugitu da bertzetara baino; dantzak eta herri kirolak bildu dute aurten ere jende gehien. Betizuak eta pilota partidak ere nahikoa animatuak egon dira, eta mailarik apalenean, bururik ezin altxatuz, ilunabarreko bertso saioa. Begibistakoa da dagoen lekuan edo orduan ez duela arrakasta handirik.

Bestak pasatuz gero, batzuk mendira begira ditugu, bertze ba-



OSKAR TXOPERENA

Bestetako aurpegi ezberdinak: Alde batetik haurrak dantzatzen ikusteak daukan grazi eta ikusgarritasuna, eta bertzetik, ellzaren atarian, San Miguel egun bezperan San Juanen irudiarekin egindako astakeria. Komunak hondatu eta bertze zenbait gaiztakeria egin omen zituzten. Beharrezkoak al dira horrelako gehiegikeriak besta egiteko?

tzuk ikastaro berrietan hasteko prest, eta gehie-

nak negu parteko eguneroko lanei begira.

Irrati ibiltaria

Urtero bezala, udazkenean izanen dugu Xorroxin Irrati ibiltariaren bisita eskolan, urriaren 22tik 26ra arte, hain zuzen. Herriko haurrak esatari edo irratizale lanetan aditu nahi duenak 108 FM frekuentzia ingurua bilatzea bertzerik ez dauka, eta goizeko 11etatik aitzinera erne egon.

Eskolarekin ari garenaz, Gurasoen Elkartearen juntakide berrien aukeraketaren berri emanen dugu. Hiru dira iraileko batzarrean aukeratutakoak: Pilar Txueka, Miriam Etxarte eta Maite Taberna; bertze urte batez jarraituko dutenak: Mila Iraola, Ana Sunsundegi, M^a Luz Etxeberria eta Elena Iguzkiaguire.



MARTIKO

Gure baserrietako produktuak

948 625016 • Fax 948 625036
Alkaia Industrialdea • BERA



Zalain Auzoa & 948631106
BERA

EGUNEROKO MENUA ETA KARIA

Boda eta banketeak ematen dira



Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466

PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA



Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking eta haurrentako bizikletak

Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

ARANTZA

Udazkeneko Kulturaldia azaroaren hasieran izanen da

Azaroaren lehenerako Baserritarren Egunaren VII. edizioa antolatuta da

Nerea ALTZURI

Dena prest dago Kultur Egunak hasteko. UE-MA, Bortziritako Euskara Mankomunitatea eta Herriko Etxearen dirulaguntzarekin, eta Ekaitza elkarteak, Guraso elkarteak, Gazte Asanbladak, Zahar-Txokok eta eskolak antolatuta, azaroaren 1etik 4a arte egingen da Udazkeneko Kulturaldia.

Kultur egun erreldoa baserritanen egunak estreinatuko du. Ekaitza elkarteak antolatuta, zazpigarren aldiz frontoiak azoka itxura hartuko du. Txaranga ere arituko da, eta ondotik bazkaria izanen da Zahar-Txokon, Mendizabal eta Zeberio bertsoariak alaitua.

Azaroaren 2an, orziralean, arratsaldeko



ARTXIBOKOA

Baserrietakoazienda eta produktuak ikusgai izanen dira azaroaren 1ean.

7,30etan, Jakoba Errekondok solasaldia eskeiniko du elkartearen. Baratzeko edo landareei buruzko zalantzak izanez gero, hitzaldiaren ondotik, galderak erantzuteko tarte hartuko da.

Larunbatean, azaroaren 3an, haurrek hartuko dute arratsaldeko atalik nagusia. 4etatik aintzinerak tailerrak egingen dira eskolan eta Guraso elkarteak presaturiko berendua das-

tatuko dute. Ilunabarrean, mezaren ondotik, Jon Bergaretxe kantariaren emanaldia izanen da elizan. Igande arratsaldean berriz, ipuin kontalaria izanen da kultur egunak akautzeko.

FLASH

Udazkeneko Bira

programaren barrenean, urriaren 26an "Oze-ko Magoa" antzezlanataularatuko du Ten Pinpilinpauxa taldeak arratsaldeko 7,30etan.

Filme laburra

Urriaren 28an, igandean, "Ahmed Alhambra-ko printzea" film laburra proiektatuko da eskolako gimnasioan, Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusitik egiten ari diren ekitaldien barne.

Ikastaroak

Soinketa eta eskulan ikastaroak ere hasi dira dagoeneko. Bertze urte batez, Karmele Iruñdarrak soinketa ikastaroa abiatu du hamar ikaslekin, astearte eta ortzegunetan, arratsaldeko 5etatik 6etara. Aurtengoan ere, Pui etxalartarra irakasle dute eskulangintzan trebatu nahi duten 15 lagunek astearte arratsaldetan: lehendabiziko txanda, 5,30etatik 7,30etara eta, tenore honetatik aintzinerak, bertze bi orduz aritzen da hurrengo taldea.

ALBERGIA
JATETXEA
& 948 634179
ARANTZA

SAROB
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

& 948630052 • Zalaia • BERA

BORTZIRI
UNIOI ANAIK
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA
Eguzkitik babestekoak (elektroko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorak • Igerilekuekako sareak • Kamioientzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...
% 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA
PERTSIANAK
ERA GUZTIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK

DONEZTEBE

Emakumeendako negozio ideien berri eman zuen Cedernak

Juansenean urriaren 8an egindako jardunaldietan

ttipi-ttapa

Urriaren 8an Malerrekako emakumeek negozio berri bat idekitzeko ideien inguruko jardunaldiak egin ziren Doneztebeko Juansenean. CEIN-ek, Cederna-Garalur agentziarekin eta Nafarroako Berriztapen eta Enpresen Europar Zentruak landa eremuetan bizi diren emakumeei zuzendutako lan ikastaroa gidatu zuen. Jardunaldien helburua, langabezian dauden emakumeendako lan aukerak sortzea da.

Jardunaldi hauen bidez, Nafarroako bertze eskualdetan ederki funtzionatu duten eta inguru honetan oraindik ez dauden negozio adibide batzuk jarri zituen CEINek, etorkizun hurbilean lanpostu berriak sortzeko baliagarriak izaten ahal direnak. Bertzeak bertze, ziberkafea, etxetik egiten den telelana eta bertzelakoak aipatu ziren.

Ekitaldi ezberdinak



TTIPI-TTAPA TB

Juansenean bildutako hogei emakumeek etorkizun hurbilean lanpostu berriak sortzeko baliagarriak izaten ahal diren ideiak aditu zituzten.

antolatzen dituen Doneztebeko Axura enpresaren berri ere eman zen, hemen bertan sortutako negozioen adibide gisara.

Juansenean bildutako hogei bat emakumeek Lorena Albeniz nafarroako Emakumearen Institutuko kudea-

zaila; Arantxa Arregi, Cederna-Garalur erakundearen garapen agentea eta Pilar Irigoien eta Begoña Bordonaba CEIN-eko formakuntza eta motibazio arduradunen solasaldiak aditu zituzten, norberak bere lana sortzearen garrantzia azpimarratuz.

Baina hau ez da bakar-bakarrik Malerrekara zuzendutako esperientzia isolatua izan. Malerrekara izan da Nafarroan gisa honetako jardunaldiak egiten diren bigarren eskualdea, eta arduradunek erran digutenaren arabera, ez da azkena izanen.

MALERREKA

Udazkeneko Bira hainbat herrietara ailegatuko da

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak urtero antolatzen duen «Udazkeneko Birka» kulturaldiaren hainbat ekitaldi ailegatuko dira Malerrekara eta Bertizaranako herrietara. Kollins Klown antzerki taldea Donamarian ariko da, «Marcelina oiloa» eta «Txokolatezko etxea» antzezlanak eskainiz. Iturenen Ataitz musika taldea ariko da. Zineari dagokionez, Urrotzen «Banpiro txikia» euskarazko filmea ikusgai izanen da eta Narbarten, berriz, «Baloia» filmea, hau ere euskaraz.



ARTXIBOKOA

Bi antzerki emanaldi izanen dira Donamarian.



APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE



GAZTANDEGIA

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Amezitia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

ELGORRIAGA



DIARIO DE NAVARRA

Onddo eta Zizen Kofradiako kide gehienak Santiago elizan. Erdian, jantzi ilunagoarekin, Salamanca-ko Guljuelo urdalazpiakoaren Kofradiako ordezkaria.

Onddoen Kofradiaren kide berriak izendatu zituzten urriaren 7an

Horien artean Migeltxo Saralegi harrijasotzaile leitzarra

ttipi-ttapa

Onddo eta Zizen Kofradiak antolatutako Hilabete Mikologikoa akitzeko, kofradiaren ohorezko lau kide berriak izendatu zituzten urriaren 7an Elgorriagan. Zazpigarren kapitulu honetan, Migeltxo Saralegi harrijasotzaile leitzarra, TVEko «Saberyganar» saioa aurkezten duen Jordi Hurtado ka-

zetaria, Javier Taberna Nafarroako Komertzio eta Turismo saileko zuzendaria eta Jesus M^{te} Salas, Donostiako Gaztelubide elkarteko lehendakaria hartu zituzten kofradiako kideak.

Arangurengo abesbatzak kantatutako meza-oren ondotik eman zizkioten kapa eta makilak. Gero, kaxulen txapelketaren finala jokatu

zen. Larunbatean hamalau partehartzailekin hasi zen txapelketa eta igandean hiru finalista zeuden: Gabriel Perez, Txema Pastor eta Iñaki Erasun. Azkenean, saria hutsean gelditu zen eta prestatutako platerak bertan zeudenen artean banatu ziren.

Elgorriagan egin nahi den Museo Mikologiko-

aren aldeko enkantea ere burutu zen. Martindarren burdin lanak, Juan Carlos Pikabea le sakarrak emandako margolana, guijuelo urdaiazpiko bat, Isabel Olazarrek egindako lorontziak eta Elgorriagako produktuekin osatutako bi lote atera ziren enkantea. Azkenean 150.000 pezeta inguru bildu ziren.

EZKURRA

Kanposantua handitzeko proiektua aurkeztu du Udalak Iruñean

Pelo ZESTAU

Nafarroako Gobernuaren Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean sartu ondotik, Ezkurrako Udalak kanposantua handitzeko proiektua aurkeztu berri du Iruñean. 4 milioi pezeta inguruko aurrekontua du proiektuak eta hilerria zabaltzeko lurra erositako dagoeneko Udalak. Nafarroako Gobernuaren oniritzia jaso ondotik, lanak ematea bakarrik geldituko da.

Uso gutxi

«Orain arte hildako usoekin saltsa mehea aterako da». Hori da Eperleku eta Mosaiko inguruetako ehiza postuetan dabilzan ehizatariet momentuz esaten dutena. Txantxangorri elkartean biltzen diren herriko ehizatariet urteko kuota ordaintzen diote Udalarari.

616 513 497

PITTI

ESKABAZIOAK

(Auzotz)

31000 DONOSTIA (GIPUZKOA)



Ziboria Martzaria


Martxoak 10

0-14 urte

10:00 - 14:00

14:00 - 18:00

Udazken eta neguko azken nobedadeak



GOIZUETA

Josune Narbarte da eskolako atezain berria

Pilota eskolakoak, bestalde, Belateren txapelketa jokatzeko ari dira

Esteban AROTZENA

Urriaren 8az geroztik eta gutxienez beste hiru urte igaro artean Josune Narbarte gazteak hartuko du bere gain eskola, Udaletxea eta medikuaren kontsulta garbitzearen lana. Gainera, eskoletako atezaina ere bera izanen da eta horretarako bertan bizi beharko du, eskola atariko etxebizitzan alegia, horrelaxe esaten baitzuen lanpostuaren deialdian heldu zen baldintzetako batek.

Jakina den bezala,

azken urteetan Juli Oiarzabalek bete du aipatutako postu hau, baina orain uzteko erabakia hartu du. Orain dela hilabete batzuk adjudikatu zion Udalak emakume honi azkeneko aldiz lan hau, eta orduan beste eskaintza Narbarterena zen. Horregatik, ez dute inolako zalantzarik eduki Herriko Etxean lan hau berriz emateko garaian, 3.200.000 pezetaren truke hain zuzen. Urtero, KPI gehituko omen zaio dirutza honi.



ESTEBAN AROTZENA

Azken hilabete hauetan herriko leku askori bezala, itxuraldatzeko garaia ailegatu zaila izan da. 1898. urteko malatzaren 29an ateratu zuten Udalak subastara izan eta aska bat egiteko obra. Orain dela berrogei urte inguru apaldu zuten, eta gaur egun aska baten behar handiegirik ez dagoenez herrian, Iturriaren itxura eman diote.

Umore-Onak ere lanpostua

Umore-Onak ere lutzatu berria du deialdia elkarteko garbitasunaz arduratuko den pertsona bat behar duela esanez. Izen emateko epea azaroaren 30a artekoa da eta Loidineko Koro

Zabalarekin hitzegin behar da horretarako.

Pilota eskola

Angel Salaberriak zuzentzen duen pilota eskolako mutikoek jptasuekin diote lanari udazkena ailegatu orduko. Burlatako eta Gartzara

rongo txapelketetan ari dira batzuk, baina interesgarriena Belate elkarteak antolatutako duen torneoa izanen da, Nafarroa guziko 1.300 pilotarik jokatzeko baitute bertan. Hauetatik hamar goizuetarrak izanen dira.

ARESO

Aerobic eta kantu ikastaroak eta katekesia hasiak dira

Ehiza postuen subasta egin zen

Juana Mari SAIZAR

Garai honetan, ikasturtearekin batera, beste hainbat ikastaro ere martxan jarri dira. Aerobic (helduentzat) eta kantu tailerra (umeentzat) egin nahi dutenek ohiko lekuetan apuntatu beharko dute. Egunak eta ordutegiak, iazko berdinak izanen dira.

Elizan ere katekesia

martxan jarri zen joan den asteburuan eta lau talde egingo dira: bi talde sendotza prestatzeko, jaunartze ondorengo talde bat eta 12-14 urtekoak beste talde batean. Hiru gazte bere borondatea erakutsi dutelako lan hauek egiteko.

Janaria Sahararako

Nafarroa osoan eginen



ARTXIBOKOA

Saharako umeak Areson izan ziren udan. Orain beraien herrialderako janari bilketa kanpaina burutzen ari da Nafarroa osoan.

ari den bezalaxe, Areson ere Saharara bidaltzeko janari bilketa kanpaina eginen ari da, urriaren 21a arte. Lekariak, pasta, arroza, eta sardin eta atun-latak bil-

tzen dotuzte eskolan eta janaridendan.

Ehiza postuen subasta

Ehiza postuen subastak 2.650.000 pe-

zetako diru-sarrerara ekarri dio Udalari. Etxebizitzak egiteko terreneak 10.100.000 pezetatan saldu dira. Orain, hurrengo plenoan onartzea falta da.

LEITZA

«Silencio roto» filmeak irekiko du aurtengo zine denboraldia

Urriaren 26 eta 28an, lehendabiziko emanaldiak

Joseba AZPIROZ

Urriaren 26an hasiko da berriz ere zineko denboraldia, Montxo Armendarizen «Silencio roto» Agoitz aldean egindako makiei buruzko pelikularekin. Denboraldi honetan ere saioak ostiraletan 10'30etan eta igandeetan 7'30etan eskainiko dira. Hurrengo bi asteburuetan «Amores perros» eta «El planeta de los simios» pelikulak ikusi ahal izanen ditugu.

Euskara merkataritza mundura kanpainarako langilea behar da

Leitza eta Aresoko Udaletako Euskara Zerbitzuak pertsona bat behar du «euskara merkataritza mundura» izeneko programa martxan jartzeko. Langile honek bi herriotako denda, jabetxe, tailer eta era guztietako establezimenduak bisitatuko ditu, euskara zerbitzuaren eskaintza eta programa-

ren alderdi ezberdinak azaltzeko. Izena Euskara Zerbitzuan edo Areso nahiz Leitzako Udaletxeetan eman behar da, urriaren 26a baino lehen. Aukeraketa egiteko, proba bat egingen da.

Kontribuzioaren ordain agiriak

Udalak kontribuzioaren ordain-agiriak igorri ditu. Aurten 33,08 milioi bilduko ditu hiri-kontribuzioarengatik (erai-kuntzak), 2,05 milioi landa-kontribuzioarengatik (lurrak) eta 247.700 pzt. komunalen probetxamenduarengatik kobratzen den kanonaren bidez. Ordaintzeko epea urriaren 31 arte da.


Biztanlego eta etxebizitza inkesta

INE (Instituto Nacional de Estadística) delakoak herriko lau lagun kontratatatu ditu Leitza, Areso eta Beteluko Biztanlego eta Etxebizitza Estatistika egiteko. Aitziber Sagastibeltza Ba-

leztena, Aran Sagastibeltza gastibeltza Jaione Laba Makatzagak Leitzako lana egiteko eta Aran Sagastibeltza Lulbiok berriz, Areso eta Betelukoa. Estatistika hau egingen da etxez etxe ibiliko dira etxei buruzko hainbat galdera egingen dituzte (neurriak, instalazioak,...). Etxe bakoitzean bizi den jende kopurua ere jasoko dute. Estatistika hilaren 22an hasi eta bi hilabetez burutuko dute. Azkenekoa aldiz duela hamaika urte egingen zen.

Umeentzako berbena larunbatean

Urriaren 20an, larunbata, iluntzeko 7etan, Xilipurdi taldearen umeberbena izanen da plazan, Kultur taldeak eta Udalak antolatuta.



ARTXIBOKOA

Montxo Armendarizek zuzendutako «Silencio roto» filmearen kartela. Urriaren 26an irekiko du pelikula honek Leitzako zine denboraldia.

manelsa S.L.

elektrizitate industrialia

Instalazio eta muntaia
elektrikoak
Mantenimendua
Automatismoak
Iluminazioa

Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
31700 ELIZONDO

Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., & 948133328+133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

BAZTAN

Interes Kulturaleko Ondasuna izendatu nahi dituzte zortzi erretaula

Horietatik 5 Azpilkuetan eta 3 Lekarozko parroketan daude

Rakel GOÑI

Bianako Printzea erakundeak aurkeztu dituen informeen arabera Azpilkuetako eta Lekarozko elizetan dauden erretaulak Interes Kulturaleko Ondasuna izendatu nahi dituzte. Lekarozko San Bartolome elizan daude lehenengo hiruak: Nagusia, eta bi alboetan dauden Arrosarioko Amabirjina eta Santa Catalinarena. Azpilkuetan San Andres elizan daude bertze bortzak: Nagusia, ondoan dauden bertze bi (Arrosarioko Amabirjina eta Santa Barbararena) eta alboetako biak (Bakardadaren Amabirjina eta Gurutzatuarena). Artelan hauek hondatzen badira, konponketetarako dirulaguntzak errexago lortzea espero dute izendapen honekin. Azpilkuetako erretaulak konkretuki Luis Carmona eskultoreak eginak dira uste da XVIII. mendean.



RAKEL GOÑI

Azpilkuetako San Andres elizan dagoen erretaula Nagusia Luis Carmonak egina XVIII. mendean.

Kultur etxe berriaren dirulaguntzak

Uztailaren 19an publikatutako aginduan Na-

farroako Gobernuak, Elizondoko kultur etxe berria egiteko laguntzak onartu zituen. Aurrekontuaren erdia Gober-

nuak ordainduko du, denetara 186.772.533 pezeta. Dirulaguntza lau urteko aurrekontuetan isladatuko da: 2001ean 11,3 milioi pasa, 2002an 28,5 milioi, 2003an ia 90 milioi eta 2004an ia 65 milioi. Halere, Baztango alkateak irailaren 21ean egindako batzarrean azaldu zuenez, kontseilariarekin egindako bilera batean dirulaguntzaren %75a ematea eskatu zitzaion. Udalerrriaren berezitasunak kontuan hartuta litekeena da Gobernuak eskaera onartzea eta beraz udalak orain ordaindu behar dituen 186 milioiak 93 milioitara jaustea. Udalak jadanik obren proiektua egiteko lehiaketa onartu du eta dirulaguntzaren %75a jasotzeko gestioak hastea erabaki du. Aurreproiektuan, kultur etxearen kokapena, Baztandarren Biltzarren egoitzaren pareko aparkalekuan egitea aurreikusita da.

FLASH

Julian Mitxelena apezari omenaldia

Elizondoko herriak ere Julian Mitxelena apezaren 50 urteko lana eskertu nahi izan du. Elizondoko bandak Mitxelena etxetik elizara eramane zuten. Han bertzearen artean Juanito Erasoren abesbatzaren zuzendaria zegoen apezari ongi etorria emateko. Javier Azpiroz apezak meza eman zuen eta ondotik Elizondoko herriak zenbait opari eman zizkion. Compostelatik ekarritako Santiago Apostolua eta plaka bat. Bandak ere argazki bat oparitu zion. Ondotik Baztango Dantzariak aureskua dantzatu zioten eta azkenik hameketakoa hartu zuten Julian Mitxelenarekin egon diren eskaut aunitzen parte hartzearekin.

Ortziralero neurri handiko zaborren bilketa

Baztango Udalak ortziralero, kontenedoreetara bota ezin diren tamaina handiko etxe-pusak bilduko ditu. Orain arte bilketa hilabetean behin egiten zen baina orain lau aldiz egiten da. Informazioa nahi duenak 948 580 006 telefonora deitu behar du.

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
 Tel.: 948453410
 Fax: 948453378
ARIZKUN
 Parrilan egindako haragi eta arrainak

gaztelu scl
iturgintza
 kalefakzioa saneamendua gasa
 & 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

Gierrosena
OSTATU - JATETXEA
 Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
 Iturriotz Auzoa • & 592043 • **ORNOZ-MUGAIRI**

ONASKA
ERRETEGIA
 Euskal sukaldaritza
 Arrain eta haragia brasan
 Bagordiko bidean • **ELBETE**
 & 948 45 20 88

BAZTAN

Segundo Anaia frontoia inauguratu dute Oronoz-Mugairin

Duela 8 urte Florentino Goñi alkatea hasi zen frontoia berritzeko ideiarekin

Rakel GOÑI

Irailaren 29an besta giroan Oronozko herriak Segundo Anaia frontoi berritua inauguratu zuen. Florentino Goñi Oronoz-Mugairiko alkatea, 8 urtez aritu da proiektua aitzinet atera nahian eta azkenean lortu du. Bizente Sanzberro apezak instalazioak bedeinkatu zituen. Agintari ugari bildu zen frontoian. Calixto Ayesa kontseilaria, Javier Trigo Kiroletza eta Gaztediaren institutuaren zuzendaria eta Baztango Udaleko ia agintari guztiak, Patxiko Oartzabal alkatea buru zutela.

Frontoia 53 metro luze ditu eta 450 pertsonendako tokia dago bertan. Obregatik 50 milioi ordaindu behar izan dira. Urrutia Fundazioa da frontoiaren jabea eta herriari 75 urtez zedituko dio.

Gartzaingo medikuaren etxea tasatuko dute

Baztango Udalak Gartzaingo medikuaren etxea tasatu eta enkantean ateratzea proposatu du. Gartzaingo herria batzarrean bildu



MENA ARGAZKIAK

Segundo Anaia frontoiaren Inaugurazioan Rafael Olazola, Bizente Sanzberro, Florentino Goñi, Patxiko Oartzabal, Calixto Ayesa eta Javier Trigo.

ondotik bi proposamen aurkeztu dizkio udalari: batetik herriaren erabilerarako uztea eta beraz, tasaziorik ez egi-

tea. Edo enkantean lortzen den dirua Gartzaingoen inbertsioak egiteko erabiltzea. Momentuz Baztango Udalak ez du

erabakirik hartu. Bitartean herriko juradoa den Joxe Mari Ursuegi proposamenak ez direla kontuan hartuko uste du.

FLASH

Amaiurko errota 25 urtez emanen dute

Amaiurko errotaren 32 portzionistek erabaki bezala, 25 urtez errota Baztango Udalaren esku egonen da. Honekin batera Nafarroako Gobernuak errota moldatuko du eta 25 urteren buruan jabeek egoitza berreskuratuko dute


Baztango mendigoizaleek denboraldia hasiko dute

Baztango Mendigoizaleak taldeak denboraldi berria hasiko du azaroaren 4ean. Igande horretan Baigorritik hurbil dagoen Muinoa mendira iganen dira. Ondotik Azaroaren 11n ibilialdia Auritzera eginen da.

Mikel Goñi 3 astez bajaran egonen da

Oronozko pilotariak aspalditik behatz bat beztua zuen. Medikuen araberako 3 astez bajaran egon beharko du behatza sendatzeko.

BAZTANGO BIZTANLERIAREN BILAKAERA



2001eko erroldaren datuak

Baztanen 2001ean egindako erroldaren berrikusketan 7.784 pertsona bizi direla zehaztu da. Horietatik 3.962 gizonezkoak eta 3.822 emaztekiak. Aitzineko urteekin konparazioan, erran daiteke gorakada nabarmena izan dela 2000. ean, hainbetez urtez beheranzko joera egon ondoren. Honela bada 1960an 9.312 biztanle zenbatu zituzten, 1981ean 7.983, 1991n 7.918 eta iazko urtarrilean 7.598. Datuen arabera, 186 pertsona gehiago daude Baztanen. Adituen ustez, gorakada inmigrazioari esker izan da. Badirudi batez ere Ekuadorretik etorritako jendeak gure bailararen etengabeko hustuketa geldiaraziko duela.

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

ARROPA DENDA
GAZTEENDAKO era guzietako arropa
LANERAKO arropa

BURKAITZEA
ostatu erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
☎ 948 599280 • URDAZUBI

IRULAR
Kanpo eta barne algerako margoak
Kolare guzikiak prestatzen ditugu
☎ 948 45 22 50 • IRURITA

SARA

Jende gutti elkartu zen Zazpiak Bat dantza taldearen biltzarrean

Musika kurtsoak oraindik ez dira hasiak, erakaslea falta baita

Aña Mari eta Fred

Zazpiak Bat dantza taldeko biltzar nagusia urriaren 6an iragan zen Gazteen Etxean. Arrunt jende gutti hurbildu zen biltzarrerat, bulegoko partaideen kezka sortaraziz. Aurten bulegoan ez da aldaketarik izanen, iaz sartutako guziek segituko dutelako lanean. Diruaren aldeetik elkarte ongi doa, udako ekitaldi arrakastatsueri esker. Sos alde ederra biltzen dute ere Omordian, Daniel Laplacettek antolatzen dituen dantza emanaldiekin.

Kopuruen aldetik, 80 bat haur hasiak dira kurtsoak hartzen eta 15 bat heldu. Aipatu behar da erakasleak herriko gazteak direla eta hauen lana zinez eskertzekoa dela. Musika kurtsoak, berriz, oraindik ez dire hasiak, joan den urteko erakasleak bere postua utzi du eta Euskal Dantzarien Biltzarrrak ez du oraino ordezkariarik atxeman. Bilkuren ondotik, tragobatzuk edateko astia hartu zuten.

Errugbian hasiera txarra

Sarako Izarra errugbi



Urriaren 7an, Igandearekin, 22. Lapurtarren Biltzarra ospatu zen Uztaritzen. 1979an hasi eta geroztik urtero, urriko lehen Igandean Lapurdiko hiriburu ohian egiten den besta dugu hau. Beti bezala, goizean karroen ibilaldia antolatu zen. Aurten zortzi herriek hartu zuten parte desfilean, hala nola Miarritze, Sempere, Larresoro, Ezpeleta, Kanbo, Mugerre, Donibane Lohizune eta Sara. Azkeneko urteetan Sarako ordezkariarik ez baldin bazen agertu desfilean, aurten saratar gazteek ederki plazaratu dute bere arrangura: etxeen espekulazioa.

taldeak hasiera aski kas-karra eman dio aurten-go txapelgoari. Lerro hauen idaztean bi norgehiagoka jokatuak zitu-ten: buruilaren 30ean, nahiz eta etxean jokatzen zuten, basurdeek berdinketarekin konformatu behar izan zuten Idroneko taldearen aurka (9-9). Bigarrena Animanatik urrun jokatu dute eta Lasseube-tik pundurik gabe itzuli dira etxerat (35-6). Bigarren

taldea hobeki hasia zen Idron garaituz, baina bigarren partidua ez du jokatu jende eskasez. Datozen hitzorduetan, aipatu gure jokalariek urriaren 14ean Xiberuko Mendikota herrirat joan beharrak zirela. Urriaren 21ean aldiz, pausatzen ahalko dira Txapelketako partidurik ez baita izanen. Haatik ondokoa ere etxetik kanpo jokatu beharko dute Goes-eko basurdeen

aurka. Ea nungo basurdea den hobe!

Gure Irratian Sarako berriak

Urriaren 16etik goiti eta asteartero, goizeko 9ak aldera Gure Irratian herriko berriak entzuteko parada ukanen dugu: 90,5 edo 106,6 frekuentzian hartzen da irratia, tokien arabera. Bernadette Amorena eta Manex Bergara izanen ditugu berriemaile.

FLASH

Sutea Cherchebruit auzoan

Joan den buruilaren 25eko gauean, sute bat lotu zaio Cherchebruit auzoko Beluetenea etxeari, honen zati bat suntsitua izan delarik. Etxea saltzeko izanik, eta ez zen nehor barnean. Suhiltzaileek hongoi bat minutu behar izan dituzte suaren itzaltzeko.

Auto istripu larrian hil da Agirre anderea

Auto istripu larria gertatu da Portuatik eta Santa Katalinako kaperaren artean joan den urriaren 2ko arratsaldean. Bertan Anne-Marie Aguirre, bi seme-alaben amak bizia galdu du. Berri latz horrek herritarrak biziki hunkitu ditu eta omenaldi bezala aipatzekoa da bertzeak bertze, Sarako errugbilariek minutu bateko isilunea eskaini diotela Lasseube-ko partidua hasi aitzin. Doluminak familiari.

Eskoletako haurren autobusa aldatuko da

Herriko Etxeak eskoletako haurrak eramaten dituen autobusaren aldatzea erabaki du. Erran behar da poliki zahartzen hasia dela eta segurtasun neurri guziak ez zituela behar bezala betetzen. Hogoita zazpi tokiko autobus berri bat begiztatua omen dute. Agian aitzinekoak bezainbat iraunen du!



SOULE
Hileta artea
 Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



HERRIKO ETXEO ERANTZEGIA
 CAFE DE LA MATRIEL
 MAIXAN ETA VÉRONIQUE
 SARA • TEL 0559542519

SEMPERE

«Herri Dantzari» bestak dantzariz beteko du herria azilaren 3an

Bi miliun eta erdi libera gostako da haurtzaindegi berria

Franck DOLOSOR

Zirikolatz euskal dantza taldean lanean hasi da haur eta heldueri dantzak erakasteko xedearekin. Portugala eta Montluçon bisitatu ondoren uda huntan, orain ikastaroen aldi da. Xehetasunak izateko deitu behar da telefona huntan: 05.59.54.53.13.

Bertzalde, azilaren 3an larunbatarekin egun osoan Herri dantzari ospatuko da gure herrian. Iparralde osotik 500 euskal dantzari etorriko zaizkigu bakotzak bere dantzak erakusteko errebotean arratsaldean, gero arratsean bestak segituko duelarik Ibarrungo Inharrea baserrian.

Haurtzaindegi berriaren proiektua eta berte batzuk

Gantxiki eta eskola publikoaren artean eraike nahi den Haurtzaindegi berriaren proiektua aintzintzen ari da. Planak jadanik banatu dituzte azken herri kon-



Burullaren 29an, larunbatarekin, aspaldiko errugbizaleek adiskidantzazko partidak jokatu zituzten herriko kirol zelaian. Giro onean iragan zen eguna, gauean segitu zen Ibarrungo Boneteian egin zen afariarekin, besten kari.

tseiluan eta itxura guzian arabera 2 miliun eta erdi gostako da.

Aintzina doan berte proiektua Luberriako urtegiaren finantzamenduarena da.

Aintzirako urtegia berritzea ere aztertzen da. Bertzalde, ETB ongi ikusteko antena uste baino berantago plantatuko da, bainan seguriz izan heldu den urteko

lehen hilabeteetan euskarazko seinalea hedatzen hasiko dela.

Euskal departamenduaz solastu dira herriko kontseilari berriak

Gehingoa aldaturik den martxoan, bozketan berriz egitea proposatu zuen Christine

Bessonart andere auzapezak. 23 bozemaiterik, 20 departamendu berriaren alde daude, abstentzio bat eta 2 kontra. 'Lehenik senpere' Christian Fourgeuren listak ez zuen parte hartu bozketan eta gainerat errekurtsioa presentatu du prefeturaren erranez mozioa izan balitz alde bozkatuko luke.

FLASH

Euro Tech lantegia

Duela hilabete batzuk TTUPI-TTAPAK aintzintatu zuenez Euro Tech lantegiak hartu du Delphiaren tokia lizardia lantzealaian. Iaz, bere irabaziak %50ez upatu ziren eta herrian 50 langile enplegatzen ditu Quicksilver markarentzat lan egiten duen enpresa hunek.

Arretxea kolegioko egoitza berria

Urriaren 22an igandearrekin inauguratuko da Arretxea kolegioko egoitza berria. Ikasgela berriak prestatu dituzte aurtan sail elebiduna, teknologia, eta informatika aterbetzeko. Sekulan baino haur gehiago ibilki da Arretxean, aurtan 194 gaztek ikasten dute herriko kolegioan.

«Euskal Herriko kasetak» egunkari berria

Hemengo berriak ere zabaltzen ditu urriaren 16az geroz egun guziz banatzen den 'euskal herriko kasetak' egunkari berriak. 1960 urtetik hurnat argitalpen bakarra irakurri badugu, orain hauta izanen da Baionan berean izkiriartzen den egunkari berriari esker.

HORTZ KLINIKA
Dr Guy Cadillon
3 dentista *espezialidade guzietarako*



HORTZ ESTETIKA
IMPLANTOLOGIA (20 urteko esperientzia) • ORTODONTZIA
Aduana k., 2 • IRUN • Tel.
943 619848

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
& 948 631209

Hannatche
Artisan
GOZOTEGIA
OKINDEGIA

S.A.R.L. ETCHE-ONA
AZKAIN
Tél. 59 54 01 67



PERTSONAIA

Beñat ETXEBERRI

Ikasleak dantza taldeko lehendakaria

Jakinez hainbertze haur zirela dantza ikasten Azkainen (96) ez genuen talde hori desegiten uzten ahal zuzendaritzan eskasa bazelako. Orai arte Maialen etxeberrik lan handia eraman zuen azken urteetan segitu behar zen eta hortarako talde eder bat muntatu dugu lan horren bantzeko. Elgarrekin lan egiteak motibazioa ekartzen du ere.

Bulegoan idazkaritza lana Agnes Sagardiak egiten du, diru-zaintzan Bernadette Ondicola izanen da eta ni lehendakari. Lehenik Maialen Etxeberrik hasi lan ederra segitu nahi dugu. Artetik eskerrik haundienak igortzen dizkiogu egin duen guzientzat. Dantza erakasleak ez dira aldatuko: Patxi Perez eta Céline Duperou etorriko dira, orai arte egiten zen bezala. Dantzari gazteek segituko dute ttikiari dantzak erakasten. Guk gazte horiek lagundu nahi ditugu ez baita errex haientzat haur ainitz direleko eta batzu biziak baitira. Hortarako e ditugu gehiago 6 urteko haurak onhartuko. 7 urtetan hasiko dira izen emaitzak. Bursaoak ere erresponsabilizatu nahi ditugu. Ikusgarriak aberastu nahi genituzke ere dantza berri batzu ikasiz.

AZKAIN

Trikitixa eta pandero kurtsoak hasi dira Kornelio Musika Eskolan

Bollendorfeko alemandarrak errezibitu ditu Azkainek hamar egunez

Ihintza, Angela eta Eneko

Kornelio musika eskolak trikitixa eta panderoa ikasteko kurtsoak antolatzea erabaki zuen azken biltzar nagusian. Irailean hasi ziren. Asteartetan egiten dira Mamen Maltzeta eta Izaskun Añorga Hondarribiko eta Irungo erakasleekin. Jadanik 15 dira panderoa jotzen ikasteko eta 5 trikitixarentzat. Aste guziz ordu bateko kurtsoak dira: 220F (33 euro) hila-betean trikitixarentzat eta 180F (27 euro) panderoarentzat.

Orai 50 ikasle ditu Korneliok. Gehingoak eskusoinua ikasten du, baina gitarran eta txistuari ari direnak ere bada. Urte guziz bezala musikari guziki bilduko dira eguberri elizan konzertu baten eskaintzeko (trikitilariak eta panderoak ez dakite parte hartuko dutenez oraino) eta ekainean, Musikaren bestarako ere ikusgarri bat antolatu izanen da denekin.



ENEKO JORAJURIA

Kornelio Musika eskolako trikitixa eta panderojoleak

Bollendorfeko Alemandarrak

Badu orai 20 urte baino gehiago egiten direla trukaketak Azkain eta Bollendorf herrien artean. Aurten bi talde etorri dira 10 egunentzat. Lehen taldean betiko elkartekoak ziren (35 gazte eta heldu). Familietan banatuak izan ziren eta Euskal Herria bisitatzen pasatu zuten bigaia. 2. taldean 39 futbolari ziren. Aurten diru



laguntza berezi bat izan zuten kirolaren inguruan egin baitzuten proiektu bat. Ziburuko futbol taldearen kontra aritu ziren Urriaren 9an eta 4 - 4 emaitza lortu zuten.

Cartsten Salewski, talde horren buru den gazteak Beñat Boucon Azkaindarrari eskerrak igortzen dizkio beren bidaiarentzat lan ainitz egin baitzuen.

Loredenda

Azalea

- Zentroak aukeran
- Loreak, krisantemoak, klabelek...
- Landareak, ziklamenak, azaleak...

Altzate 26 • & 948 631 121 • BERA

Chierry Arzac

Sellerie

Association Arzacnoise

Zelaia • Belbaton Au. 93
01310 Senpere
Tel./Fax 05 59 54 17 07



EZKONTZAK

Miguel Angel Sanchez Sanchez eta **Begoña Arakues Mazizlor**, Lesakakoak, abuztuaren 4an.

Unal Valverde Ugalde eta **Amala Leitza Arotzamena**, Bera eta Lesakakoa, abuztuaren 4an.

Xabier Ariztegi Huarte eta **Aitziber Antxordoki Rekondo**, Lesaka eta Lasarte-koa, uztailaren 28an.

Sebastian Urrotz Telletxea eta **Nagore OIartzabal Maritxalar**, Oitz eta Lesakakoa, abuztuaren 18an.

Jesus Saavedra Lekuona eta **Maria Rosa Azpiroz Lekuona**, Oiarzungoak Lesakan, abuztuaren 25ean.

Pello Iabean Soltxaga eta **Kristina Lopez Mañero**, Iruñekoak Elbeten, irailaren 14ean.

Salvador Arotzarena Marin eta **Miren Jalone Martin Otxandorena**, Elizondo eta Lekarozkoa, irailaren 22an.

Jose Javier Cordoba Cordoba eta **Maria Angeles Iñarrea Rekarte**, Burlata eta Erratzukoa, irailaren 29an.



JAIOTZAK

Maider Aitxu Aizpuru, Oronoz-Mugairakoa, irailaren 15ean.

Naroa Iriarte Etxeberria, Oronoz-Mugairakoa, irailaren 21ean.

Julen Berridi Salaberria, Berakoa, irailaren 23an.

Leire Jubera Mariezkurrena, Doneztebekoa, irailaren 28an.

Oier Aldabe Erdozain, Doneztebekoa, irailaren 29an.

Xabat Ilarregi Marzol, Leitzakoa, irailaren 28an.

Alai Arotzena Sestoraln, Leitzakoa, irailaren 25ean.

Yann Berruet, Sarakoa, irailaren 26an.

Jakes Garblso, Sarakoa, irailaren 26an.



HERIOTZAK

Jose Ignacio Lertxundi Amondarain, Elizondakoa, irailaren 25ean, 85 urte.

Agustin Lusarreta Erbiti, Elizondon, irailaren 29an, 86 urte.

Felisa Del Campo Gomez, Elizondon, urriaren 2an, 88 urte.

Visitación Mutuberria Elizondo, Saldiasakoa, urriaren 6an, 92 urte.

Ignacio Odrizola Bazo, Doneztebekoa, urriaren 6an, 43 urte.

Maria Jesus Ansa Huarte, Goizuetakoa, urriaren 7an, 78 urte.

Maria Purificacion Danboriena Etxeberria, Etxalarakoa, urriaren 6an, 82 urte.

Juan Bautista Antxordoki Perurena, Igantzakoa, urriaren 8an, 93 urte.

Eugenia Eratsun Iriarte, Urrozkoa, irailaren 11n, 76 urte.

Gabino Ansó Imirizaldu, Oizkoa, irailaren 18an, 80 urte.

Antonio Dominguez Lavado, Lesakan, irailaren 23an, 92 urte.

Cándido Mutuberria Eratsun, Saldiasakoa, irailaren 25ean, 84 urte.

Gabriel Maritxalar Aitzugarai, Lesakakoa, irailaren 28an, 61 urte.

Jose Antonio Grajirena Andiarrena, Oizkoa, urriaren 8an, 50 urte.

Anne Marie Agirre, Sarakoa, urriaren 2an, 47 urte.



& 900 704704

**FUNERARIA ZERBITZUAK
LESAKA-DONEZTEBE**

ZERBITZUAK
24 orduko zerbitzua

Iruñea-Donostia-Irungo
ospitaletik edozein herritara
trasladoak

Tfnoa 948 637404.....LESAKA

Tfnoa 948 450475DNEZTEBE

Tfnoa 948 580971BAZTAN



Purificación DANBORIENA ETXEBERRIA



Egun gogor hauetan gure ondoan izan
zaretzen eta gure saminarekin bat egin
duzuen guzietan, MILA ESKER.

FAMILIA, Etxalarren 2001eko urriaren 6an.

**ARMUA
Jatetxea**

Zugarramurdiko karretera 3. Km
& 948 599 131 - URDAZUBI

**GANIX
Tailerrak**

Iturlandeta, 9 • & 948 630669 • BERA

**IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua**

**BOAN
TAILERRA**
CITROEN Banatzailea

**AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA**
% 948 63 06 23 • BERA

HERRI KIROLA

Floren Nazabalek hartu du Nafarroan Mindegiaren lekukoa

Aizkolari txapelketa irabazi zuen urriaren 7an Etxarri Aranatzen

Aitor AROTZENA

Floren Nazabalek irabazi du XXI. mendeko lehendabiziko Nafarroako aizkolari txapelketa nagusia, urriaren 7an bere herrian, Etxarri Aranatzen jokaturako finallean ongi nagusitu ondoren. Ikusmin handia piztua zuen final honek, Mikel Mindegia erretiratu ondorengo lehendabizikoa baitzen. Zuhietako txapeldun handiaren lekukoa hartzeko Nazabal eta Donato Larretxea ziren faborito eta pronostikoa bete zuten bi aizkolariek. Aranztarra gogor hasi eta aitzinetik izan zen lehendabiziko lau enborretan, baina aste osoa medikuetan ibilia zen eta hori nabaritu zen probaren erditik aitzinera. Lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar zituzten bortz aizkolariek.

Larretxea, erran bezala, aitzinetik izan zen lehendabiziko bi kanaerdikoetan eta 60 ontzako bietan. Enbor handiak ailegatu zirenean, ordea, Nazabal aitzindu zen eta berak moztu zituen lehenik bi oinbikoak. Hortik aitzinera, aldea mantendu eta handitu egin zuen Etxarrikoak. 25 minutu eta 46 segundu behar izan



EGUNKARIA

Joan den urtean Nafarroako eta Euskal Herriko aizkolarari txapelketak irabazteko puntuan izan bazen ere, Etxarri-Aranatzen lortutakoa izan da lehendabiziko txapela Floren Nazabalentzat.

zituen lana akautzeko, Larretxeak baino minutu bat eta bederatzi segundu guttiago. Gaur egungo errekorra, 23 minutu eta 25 segundu, urrun gelditu zen.

Hirugarren posturako lehia lehendabiziko hiru-lau enborretan bakarrik ikusi zen. Felix Etxeberria sunbildarra eta Jose Juan Barbarena nor baino nor aritu ziren hasierako enborrietan, baina hortik aitzinera Beruetekoa ai-

za nagusitu zen. 30 minutu eta 35 segundu behar izan zituen lana akautzeko, Etxeberriak 32 minutu eta 46 segundu eta Daniel Vicentek 33 minutu eta 27 segundu.

«LARRETXEAK LANAK EMAN DIZKIT HASIERAN»

Floren Nazabal pozez gainezka zegoen txapela jantzi ondok: «Lehendabiziko aldia da txapelketa bat irabazten dudala eta oso pozik na-

go. Gainera, etxean irabazi dut eta hori berezia da. Larretxeak zaila jarri dit gauza. Banekien gogor aterako zela, baina ongi eutsi diot hasieran eta lanaren bigarren zatian hobea izan naiz. Hor egon da garaipearen giltza».

Orain, Euskal Herriko txapelketaren txanda izanen da. Joan den ortziralean egin zen lehendabiziko finalerdia eta finala Getxon jokatuko da urriaren 28an.

FLASH

Bigarren mailako arpana txapelketa

Irailaren 29an jokatu zen Igantzin Nafarroako bigarren mailako arpana txapelketa. Hiru bikote aurkeztu ziren eta bakoitzak 105 zentimetroko enborrari 10 kor-te etzanda eta 4 zutik eman behar zizkion. Etxauriko Xabi Olano suertatu ziren garai-le, 6 minutu eta 44 segunduko denborarekin. Mikel Azpiroz eta Mikel Auzmendi izan ziren bigarren (8'12") eta Miguel Angel Albisu eta Patxi Ondarra hirugarren (8'51").

Jon Bru Nafarroako afizionatu onena

Joan den urtean bezalaxe, aurten ere Diario de Noticias egunkariak antolatutako Challengearen irabazle suertatu da Telco, m Ordoki taldeko txirrindulari berritarra. Afizionatu mailako txirrindulari nafarrek denboraldian erakutsitako erregulartasuna sarritzen da. Profesionaletarako saltoa Portugalen emanen duen Jon Bru aisa nagusitu da, 356 punturekin, lau proba irabazteaz gain, bertze seitan podiumean izan baita berritarra. Caja Rural taldeko Unai Barazabal azpilkuetarra hirugarren izan da 168 punturekin.

Gazte mailako laxoa txapelketa

Pilarika egunean jokatutako finala Arraiozen. Iaz bezala, Irurita eta Arraiozko taldeak izan ziren azken partidaren. Hurrengo alean emanen dugu emaitzaren berri.

	54	54	60	60	72	72	60	60	54	54
1. NAZABAL	1'15"	3'04"	5'31"	7'58"	12'05"	16'09"	18'33"	21'52"	23'27"	25'46"
2. LARRETXEAK	1'06"	2'47"	5'03"	7'50"	12'41"	16'32"	19'38"	22'27"	24'56"	26'55"
3. BARBERENA	1'23"	3'26"	5'55"	8'40"	13'49"	18'52"	20'03"	25'31"	28'08"	30'35"
4. ETXEBERRIA	1'26"	3'20"	6'14"	9'26"	14'35"	20'00"	23'25"	27'24"	30'29"	32'46"
5. VICENTE	1'40"	3'59"	6'48"	9'55"	15'50"	21'50"	25'49"	29'05"	31'32"	33'27"

AGENDA

egunez
egun

OSPAKIZUNAK

BERA

Urriaren 28an XV. Lurra-
ren Eguna. Xehetasunak 10.
orrian.

ETXALAR

Urriaren 21ean
Usategietako Igandea.
Bazkalondoan Kiki, Koko,
Moko eta Flash pailazoak
eta segidan dantzaldia
Bigira taldearekin. Gero,
zozketa. Bezperan afaria
izanen da Anttonion.

ARANTZA

Azaroaren 1ean
Baserritarren Eguna,
Ekaitza elkarteak antolatua.

SOLASALDIAK

ARANTZA

Azaroaren 2an Jakoba
Errekondoren solasaldia
Ekaitza elkarte-
an, arratsaldeko 7,30etan.

ZINEMA

ARANTZA

Urriaren 28n «Ahmed
Alhambra printzea» filmea
eskolako gimnasioan.

LEITZA

Urriaren 26 eta 28an
«Silencio roto» filmea
zineman. Ostiralean gaueko
10,30etan eta igandean
arratsaldeko 7,30etan.

MENDI IBILALDIAK

LESAKA

Urriaren 20an mendi
ibilaldia Sastrinera, Iñaki
Fagoaga herriko presoa
gogoratuz. Irteera 3,30etan
plazatik eta 5etan ekitaldia
Sastrinen.

ELIZONDO

Azaroaren 4an Muinoa
mendira (Baigorri ondoan)
igoko dira Baztango
Mendigoizaleak.

TELEBISTAKO TXOKOA



NEKAZARITZA TELEBISTAN

Udazkeneko feria eta azoken txanda ailegatu da

Udazkeneko lehenbiziko prin-
tzekin batera ikastaroak, erakus-
ketak eta ekitaldi berexiak ospa-
tu ohi izaten dira gure eskualde-
an. Hauetako batzuk, beharbada
garrantzitsuenak, nekazaritzaren
inguruan antolatzen direnak dira,
azokak, feriak, eta gisakoak.

Oraindik egutegiari bistadaxo
bat eman ez badiozue, adi egon,
hurrengo asteotan etorriko baitira
besta hauek denak, bata bertze-
aren ondotik. Bertara agertzea ez
baduzue gure telebistaren bitar-
tez segitu ahal izanen dituzue. Ha-
la bada, urriaren 22an astelehe-
nean, Etxalarren hasiko da gisa
hontako besta ilara Usategietako
igandearrekin.

Urriaren 26an ortziralarekin, Eli-
zondoko feriak hurbilduko dizki-
zuegu zuen etxeetara, urtero be-
zala egunean bertan egindako el-
karrizketa eta grabaketekin. Urria-
ren 29 eta 30ean, astelehena eta
asteartea, Arantzako kultur egu-
nen berri emanen dizuegu, noski
Beran urtero ospatzen den Lurra-
ren eguna ahantzi gabe. Eta ez
da hor bukatuko, ondotik etorriko
diren feriez gain eskualdeko kul-
tur dinamikak hainbat ikastaro,
erakusketa eta ekitaldi ere eskei-
niko baitzikigu, beraz ez ahantzi,
erreportai hauek denak ikusteko
egunero arratseko 9etan, jarri TTI-
PI-TTAPA TELEBISTA. Zuen zain
gaude.

DISKAK

«Eskuak/ukabilak»

Berri Txarrak

GOR

Berri Txarrak taldeak
urriaren 27an Bergara-
ko Jam aretoan aurkez-
tuko du bere diska ber-
ria. Honen izenburua
«Eskuak/ukabilak» izan-
en da. Aurrerapen gis-
single bat atera dute
«SMT» abestiarekin. Hi-
rugarren diska izanen da
Berri Txarrak taldearen-
tzat eta aurrerapen gi-
sako abestian, inguruko
tabernetan rock musika
suspertzearen alde aget-
zen dira. Nolabaiteko
punk-rock jarrera eraku-
tsi nahi du talde euskal-
dunak. «Eskuak/ukabi-
lak» diska GOR diske-
txe nafarrak produzitu du
eta taldea gustoko due-
narentzat urriaren 1etik
aitzin dago salgai. Abes-
tien artean honako hauek
aurkituko ditugu: "Oihu",
"Ebidenteegia", "Hil bai-
nolehenago", "Biziraun",
"Zirkua"... Diska berria
entzun dutenek basati-
agoa dela diote, baina
aldi berean ere hunki-
garri eta melodikoagoa.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Irailaren 21etik 28rako prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 4.100 pta.

Zerri gizena
(95-100): 201 pta/k.

Zerramak:
122/127 pta./kiloa, bizirik.



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: Pta/kg. Kanal

Extra 540

1.koa 520

2.koa 500

Umuxak: Pta/kg. Kanal

Extra 550

1.koa 530

2.koa 510

Oharra: Prezioak 200-
230 Kg. kanalean pisa-
tzen duten aretzeenak di-
ra.

Aretze txikak

(15 egun ingurukoak):

Nabarrak: urruxak
36.000 eta idixkoak
29.000 Pta.

Mestizoak: urruxak
41.000 eta idixkoak
39.000 Pta.

Zaldikoak: Pta/k

Sortuberriak: 555/565
Zaldi-behorrak: 375/385

Bildotsak: Pta/k

6-8 kilokoak: 1.350-1.400
8-10 kilokoak: 1.225-1.275

AGENDA egunez egun

FERIAK

ELIZONDO

Urriaren 26 eta 27an.

Xehetasunak erdiko gehigarrian.

DANTZA

BERA

Urriaren 19an Dantza garaikidea. Frantziako Association AK taldearen inprobisazio ikuskizuna Kultur Etxean, arratseko 8etatik aitzinera, Lamixine BATek antolatua.

Urriaren 20 eta 21ean dantza garaikide ikastaroa Christine Burgosek emana. Izen ematea 948 630504 telefonoan.

IKASTAROAK

LESAKA

Adinekoak eta ezinduek zaintzeko geriatría ikastaroa antolatu du Herri Eskolak. Izen ematea urriaren 24a baino lehen Izarra okindegian. Xehetasunak 11. orrian.

ANTZERKIA

ARANTZA

Urriaren 26an «Oz-eko magoa» antzezlan, Ten Pinpilipauxa taldearen eskutik, arratsaldeko 7,30etan.

GUARDIAKO BOTIKAK

Urriaren 15etik 21era

Igantzi, NARBARTe, Irurita eta Goizueta.

Urriaren 22tik 28ra

Bera, Doneztebe, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

Urriaren 29tik azaroaren 4ra

Lesaka, Elizondo (Iturralde) Leitza eta Goizueta.

JAKIN BEHARREKOAK



Eskola garraioa: Lege berria

Gurasoen Elkartek gehien kezkatzen dituen gaia da, eskolako garraioarena. Erran behar da istripuen kopurua oso urria bada ere, Irailean kezka hori Diputatuen Kongresuan eztabaidatu zen. Lege berria ahalik eta lasterren publikatuko da, garraiolarien enpresek, gurasoen elkarrekin eta komunitateek egindako presioa dela eta. Azken hauen kasuan legea desberdina da tokiaren arabera. Madrilen 10 urte baino gutxiago dituzten 15 haur baldin badoaz autobusean, begiralea eramanen dute. Aragoien ordea Haur Hezkuntzako 4 haur badoaz begiralea jartzera behartzen da. Nafarroaren kasuan Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako haur bat joatea nahi-

Eskola garraioan
Autobusak gehienez 16
urte izanen dituzte.
Orain arte 18 urte izan
zezaketan.

koa da begiralea autobusea joatea behartzeko. Nafarroako Gobenuaren aurrekontuetan 94 milioi bideratzen dira zerbitzu hau bermatzeko.

Legean aldaketak

-Haur bakoitza bere eserlekuan joan beharko du (ezingo dira 3 haur bi eserlekutan joan).

-Antiguedadea. Autobusak 16 urte gehienez izanen dituzte. (orain arte 18).

-Hobekuntza teknikoak. Parez-pare dauden eserleketan, pasilloetan dau-

denetan zehazki, segurtasun uhala jarriko da.

-Geldialdiak. Begiraleak ikastetxera sartzea zainduko du eta segurtasun nahikoa ez bada agente bat eraman dezake.

-Seinale aldaketa. Orain argi-seinalea jarriko da haurrakigotzen edo jais-ten ari direnean.



LIBURUAK



Navarra, 1512-1530

Pedro Esarte

Pamiela

Pedro Esarte historialari baztandarrak 900 orrialdetan jaso du Nafarroaren konkistaren inguruan hogeitaz egindako ikerketa lana. Artxibo guztiak miatu, agiri guztiak aztertu, eta orduko gertaerak protagonisten ahotan jarri ditu *Navarra, 1512-1530. Conquista, ocupación y sometimiento militar, civil y eclesiástico* liburuan. Pamiela argitaletxe iruindarrak plazaratu du.

Esarteren ikerketa lan luzeak ideia nagusi bat uzten du age-

rian, egilearen aburuz, 1512ko gertaeren ondorio zuzena dena: «Kultura baten inposaketa gertatu zen; konkistak bi kultura politiko jarri zituen aurrez aurre: batetik, nafarra, bere orden instituzionala babestu nahi zuena, eta, bestea, militarista eta hierarkizatua, inposaketa eta konkista oinarritzat zuena». Esarteren lanaren ardatz nagusia Nafarroako garai hartako historiari buruz dauden agiri guztien azterketa zehatza izan da.

00-34 **948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezeta Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/lgeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BERA. Pisua salgai Legia, 53 - 3. % 696 753 366.

IGANTZI. Pisua, garagea eta sotoa salgai. % 948 637 845

ELIZONDO. Aldude karrikan pisua salgai. Eguzkitsua eta bitzitzen jartzeko prest. % 948 452

BULDAIN

Leitzan pisuak salgai.
Prezio onean daude.
Deitu eta galdetu.
& 649 476 615

ADOS



- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

948 451 841
607 978 656

ADOS



SUNBILLA:
Azken 3 etxeak

Etxebizitza
elkar atxikiak
106 m² + 50 m² garaje
+ lur zatia

Obrak hasiak dira

Argibideak:

& 948 451 841
607 978 656

Parrokia 9,
DONEZTEBE

SALDIMUR, S.L.
ETXE ETABERRIEN ZAHARBERRITZE OBRAK
Paretan zartadurak, barneko lanak...
Plazaola Poligonoa, A-6-7-8 eta 9
31195 AIZOAIN (Nafarroa)
Tfnoa.: 659 960605

125 (eguerditan edo gauez)

LESAKA. Pisua salgai Bittiria kalean 32. zenbakian 1go pisuan. Mobleztatua. % 619 913 375

ELIZONDO. 90m²ko pisua eta 36m²ko bajea salgai. Santiago karrika 90-1. % 948 581 052

LESAKA. Pisua salgai Al-bistur 61-2.. % 943 801 057 • 943 800 307

DONEZTEBE. Pisua salgai. 91m², berritua eta mobleztatua. Osasun etxearen ondoan dago. % 650 309 180

TORREVIEJA. Apartamendua salgai, 3 logla ditu. 15 egunetarako edo hilaletaka errentan ematen da. % 948 452 494

ETXEBIZITZAK

104 Errentan emateko

Baserrri berriztatu batean pisua alokatzen da. % 948 630 446 (gauez)

ETXEBIZITZAK

105 Etxe konpartituak

BERA. Bikote batek logela bat errentan hartu nahiko luke. % 605 314 367

ELIZONDO-ELBETE. irakasle batek pertsona bat behar du (irakasle edota langilea) pisua osatzeko. % 656 751036 (gauez) edo 943 751036 (mezua uzteko).

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

DONEZTEBE. Aparanen 75 m²ko nabe pabilioia salgai,

55m²ko bigarren plantarekin. % 948 450 906

BERA. 20m²ko bajea, pelukeria izandakoa salgai Agerra auzoan. % 948 599 158.

BERA. 500 m²ko pabilioi industrialia salgai. % 667 538 041

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

LEGASA. 450m²ko nabea alokatzen da. % 629 348 491

GARAJEAK/LOKALAK

111 Bertzelakoak

ELIZONDO. Ostautua traspasatzen da. Errenta baxua. % 948 585 016

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

ALKAIAGA. 2.400 m²ko lur eremua salgai. % 667 538 041

LANA

301 Eskariak

Beran ingles klaseak ematen dira. Irakasle natiboa. Itzulpenak eta interprete industrialen lanak egiten dira. % 659 733 391

Neska bat eskeintzen da Beran etxeko lanak egin edo haurrak eta adinekoak zaintzeko. % 647 293.306

Erizaina eta ezindu psikikoen hezitzaileak, gaixoak, adinekoak, ezindu psikikoak...zainduko lituzke ospitalean, etxean... Gauez nahiz egunez. % 655 704 629

LANA

302 Eskaintzak

Malerrekako ostatu batek zerbitzaria behar du, aste-buruetan lan egiteko. Gida baimena eta kotxea beharrezkoak, esperientzia badu hobe. % 619 829 289

Emakumea behar da sukala-

AINHOA ARBURUA

Psikologo Klinikoa

Kolegiatu zenbakia 781

Antsietatea, depresioa, anorexia, bulimia, bikote arazoak etab.

948 630 258

ARANTZA ZYRGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako

zurgin lanak

Osiña auzoa 948-634068 • ARANTZA

dean airtzeko Amezitia Ostatu Jatetxean. Goizetan bakarrik lan eginen du. % 948 450 028 • 617 333 015

IRUN. Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta haurra zaintzeko. Goizez ordu batzuk. % 943 631 589

MOTORRA

501 Salerosketak

Nissan Micra ia berria salgai. 4.000 km. 1.100.000 pezeta. % 948 580 128

Errepideko motoa salgai. Suzuki GSX 600-F. 190.000 pezeta. % 699 555 549

Lada Niva 4X4 salgai Lesakan. Hagitz egoera onean. 73.000 km. % 948 637 213

Lada Niva kotxea salgai. Ehiztariendako aproposa. Merkea, kilometro guttirikin.

BAZTAN MoToR

948 452 119 • IRURITA

Bigarren eskuko kotxe garanzatuta:

Mondeo TD, Fiesta XR2 inyecc., Berlingo 1.9 D Combi, Nissan Micra 3 ate, Fiesta 1.4 3 ate, Suzuki Vitara 1.6 3 ate, Orion 1600 gasolina...

MENDAUR MOTOR

948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Daiatsu Feroza 4x4, Terrano 3 ate, Opel Frontera TDI, Ibiza TDI, R-19, Golf SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

NA-W % 609 445 769

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Pirenaika arrazako 3 mige salgai % 667 455 014

Artzai zakurkume alemanak salgai. % 948 630 050

Behi pinttoa, lehendabiziko umaldikoa, salgai. Aratxeaegin berria. % 948 635 182

DENETARIK

701 Galdu/Aurkituak

Igantziko bestetan telefono mugikorra galdu da. % 696 266 570

DENETARIK

702 Salerosketak

Burdinezko esne garrafa zaharrak erosten dira. 3.000 pezeta. % 653 700 692

Ibañez R.G. gitarra elektrikoa, autoko kaseta (Blau-punkt Frankfurt RCM82) eta 4 auto-gurpil berriak (195/60 R14) salgai. % 948 630 516 • 678 295 574 (Raul)

Lesakako bideo kluba itxiko denez pelikula guztiak salgai. Orduategia arratsaldero 5etatik 8etara. % 948 637 136

Sukaldea salgai. Egoera onean. 6 su ditu, horietako 2 plakarekin. Labea ere bada. Prezio negoziagarria. % 606 270 978 (Joxan)

Kaja registradora, euroetara egokitua salgai. Prezio ona. % 948 580 939

Esnea hozteko tankea (320 litro) salgai. Alfa-Laval markakoa. % 948 631 047

Bero "AKUMULADORE-AK" prezio onean salgai. % 948 631 289 (gaueko 8etatik aitzin)

Logela salgai. 2 metroko armarioarekin, 1,35eko ohatzea, bi mesilla eta komoda.

ur IV k ntu



H r r r l k z t r r n t r r t s u n
l k r r n s k u t k r n n t r n t n

ur IV... (text partially obscured by image)



3,5

n k z k n r t z k z u
ur IV k ntu h l n

G r r n t z t s u
z u z r

www.nafarrak.com

**NAFARRAK
RUR L KUTXA**

Arras egoera onean. % 639 452 192

Haritzeko salako armario-libreria (2,10 metro zabal, telebista jartzeko xokoarekin) eta 180x90cm. tako mahai (bi aldetara zabalitzen dena) salgai. 8 aulki opari. Hagitz egoera onean dau-

de. % 948 452 374.

HARREMANAK

801 Agurrak

Maria Telletxea Oartzabal lesakarrak urriaren 8an urteak bete zituen. Zorionak eta muxu handi bat Berri-zaungo familiaren partetik

eta berexiki bere lehengusu Xabierren partetik.

Zorionak Xabi! Lerro hauen bitartez bada ere, hartu besarkada bero-bero eta handi bat. Animo gazte, distantziatziaz urrun egon arren, zurekin gaude.

Aupa Xabi, Eneko, Imanol

eta Kotto! Aunitz aunitz maitate zaituztegu, eutsi gogor eta indartsu. Kristonak zarete! Euskal presoak Euskal Herrira! Zorionak Elizondoko Kristina Satrustegiri urriaren 6an 18 urte bete dituelako. J.E.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.



FERNANDO ETXEGARAI lesakarrak urriaren 5ean 9 urte beteko ditu. Auniz urtez familiaren partetik.



MIKEL BALEZTENA iruindarrak laster urtea beteko du. Zorionak eta muxu handi bat Aurtziko familiaren partetik.



JULEN ERRANDONEA MARTIN beratarrek urriaren 31n 8 urte beteko ditu. Zorionak Lesakako amatxi eta izebaren partetik.



JULEN ERRANDONEA MARTIN beratarrek urriaren 31n 8 urte beteko ditu. Mila kilo zoion familiaren partetik.



JONE URRIZA OTXOTEKOK abuztuaren 26an 4 urte bete zituen. Zorionak aitona, amabai, osabak eta izebaren partetik. Musu handi bat.



IÑAKI ANTZOBERRI urriaren 4ean urtea bete zuen. Zorionak Azkaingo eta Donapaleuko familiaren partetik.



ZORIONAK GARIKOTZI Mua, mua, reketemua.



LEIRE ARRETXEA GARATE lesakarrak urriaren 23an urtea beteko du. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta Iñigoren partetik.



SARA OLAZAR MAREZKURRENA elgorriagarrak 3 urte beteko ditu urriaren 23an. Zorionak pottoka familia guziaren partetik.



XUBAN LARRETXEA ALTZUGARAI lesakarrak 4 urte beteko ditu urriaren 28an. Zorionak familiaren partetik, bereziki aita, ama eta Xabier.



BEÑAT BILLABONA GOOORTZAK irailaren 24ean 2 urte bete zituen. Zorionak familiaren partetik.



OIHANA BERASATEGI ARTIEDA beratarrek urriaren 16an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



UNAI SAPPU ALEGRIA doneztebarrak urriaren 18an 8 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



MATTIN zubitarrek 6 urte beteko ditu urriaren 12an. Auniz urtez, muxu pila bat.



IKER ALEMAN AZKARRAGA iruritarrek urtea beteko du urriaren 21ean. Zorionak "bihurri" eta muxu handi bat aita, ama eta familiaren partetik.



MAITE eta XABIER ARRAZTOA LAZKANOTEGI beratarrek urriaren 17an 4 urte beteko dituzte. Auniz urtez etxekoan partetik, bereziki aitabai Anttonioren partetik.



ANGEL IRAOLA BERTIZ beratarrek urteak beteko ditu urriaren 19an. Zorionak anai eta iloben partetik.



BEÑAT SAN MIGUEL GALAENA Arrasateko naparrak jatorrenak urriaren 5ean 11 urte bete ditu. Zorionak ama, aita eta Paularen partetik.



XABIER ERASUN ELIZONDOK urriaren 24an 3 urte beteko ditu. Zorionak Laura, ataxo eta amatxoren partetik.



JULEN AROZENA ALMANDOZ goizuetarrak 7 urte bete ditu urriaren 5ean. Aupa txapelidun, Lesakako familiaren partetik.



GORETTI ORDOIKI AGIRRE beratarrek 2 urte beteko ditu urriaren 26an. Auniz urtez familiaren partetik.



JUDITH ETXEBERRIA TELLETXEA arantzarrak 3 urte beteko ditu azaroaren 12an. Zorionak eta muxu handi bat sorgintxo aita eta amaren partetik.



MAIDER eta ATTATTO urriaren 6an eta 10ean urteak bete dituzte. Zorionak bikote familiaren partetik.



AMAI TELLETXEA arantzarrak urriaren 17an urteak beteko ditu. Auniz urtez familiaren partetik.



AMAI ASTIZ IZETA elizondarrak urriaren 5ean 7 urte bete ditu. Auniz urtez aitabai, amatxo eta Anttonen partetik. 7 urte 7 muxu handi.



RAKEL LANZ URTXEAI beratarrek 2 urte beteko ditu urriaren 22an. Zorionak familiaren partetik.



AMAI ASTIZ IZETA elizondarrak urriaren 5ean 7 urte bete ditu. Auniz urtez aitabai, amatxo eta Anttonen partetik. 7 urte 7 muxu handi.



BEÑETE TELLETXEA IGUZKIAGIRRE azaroaren 1ean 4 urte bete ditu. Zorionak aitabai, amatxi eta Iratiren partetik.

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

948 63 11 88

BERAko UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA2001eko MENDI LANAK KONTRATATZEA
Santa Barbarako oihaneztetza (1. fasea)

- Kontratuaren xedea: 2001eko mendi lanak, Santa Barbarako oihaneztetza (1. Fasea) egitea.
 - Etleipen modua: Prentsan iragarritako prozedura negoziatua.
 - Kontrata aurrekontua: 15.295.372 Pta. / 91.927,04 euro (BEZ bame)
 - Proposamenak aurkeztea: Iragarri hau egunkarietan argitaratu eman eta ondoko 14. egun naturala arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, asteleheneraino luzatuko da.
 - Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. Egun naturala. Ordua: 14:30 Egund hau larunbata suertatzen bada, hurrengo astelehenean irekiko dira.
 - Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratibo plegua eta gainerako baldintzak interesatuen eskura leku hauetan izanen dira:
 - Udal bulegoetan
 - Rubio paperdenda: Fco. Bergamin, 10 (Iruña)
 - Ingosoa: Iturlandeta Karrika (Bera)
- Bera, 2001.10.05
ALKATEA, J. Goia Etxeberria



ZUBIETAKO UDALA

LEHIAKETA PUBLIKOA, ZUBIETAKO ERROTAN
DAGOEN EKOMUSEOKO INSTALAZIOEN USTIAPEN
ZERBITZUA EMATEKO

Zubietako Udalak, 2001eko abuztuaren 3an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen lehiaketa publikora dei egitea, Zubietako errotan dagoen ekomuseoko instalazioen ustiapen zerbitzua emateko, baldintza hauetan:

- Kontratuaren iraupena: urtebetea, zortzi urteraino luzatzen ahal dena.
- Behin-behineko fidantza: 50.000 pezeta.
- Proposamenen aurkezteko lekua eta epea: Udaletxeko idazkaritzan, goizeko 9etatik 11k bitartean, 2.001eko urriaren 30eko goizeko hamaikak baino lehen (N.A.O 121, 2001-10-05)
- Beste baldintzak: baldintza ekonomiko-administratiboaren pleguan aipatzen direnak. Plegua interesatuen esku dago Udaletxeko idazkaritzan, astelehenetik ostiralera, goizeko 9etatik 11k bitartean.

Zubietan, bi mila eta bateko urriaren zortzian.

ALKATEA Venancio Baleztena Santesteban



SAME



AROZ-BERRI

Promozio
berezia

.....

**Finantziazioaren
%50a
bi urtetara
interesarik
gabe**



Zaldubia Poligonoa • Tfnoa: 948 581 021 • IRURITA

FAGOR



*Fagor
elektrogailuak,
5 urteko
garantia*

AMAIUR

Doneztebeko sarreran & 948 450 400



Prezioa zuk jarri, sukaldea guk jarriko dizugu

Antolatzailea: GURE TXOKOA ELKARTEA
Babeslea: BERAKO HERRIKO ETXEA
Laguntzaileak: Ricardo Baroja Eskola,
Labiaga Ikastola, Jesusen Bihotza
Ikastetxea, Toki Ona, IKA Bortziritako
Euskaltegia eta Berako Euskara Batzordea



BERA

URRIAREN 28AN

Lurraren Eguna

2001

10,30etan: Lizuniagako Igoera, Txalapartariak.

Gazta Lehiaketa, Barazki Erakusketa eta Sagardo Lehiaketa.

Eskulangileen Erakusketa. **11tan:** Bera Eskolako Trikitilariak

12etan: Musika Eskolako Txistulariak, Akordeoilariak eta Banda.

13etan: Irurtzongo Dantzariak.

17etan: Lehiaketen sari banaketak eta enkantea.

17,30etan: Bertsolariak. Jon Maia, Julen Zelaieta, Amets Arzallus.

18,15etan: Perkusio Taldearen emanaldia.

Ilunabarrean: Dantzaldia Irats eta

Laiotz taldeekin.

19etan: Pilota partiduak.